Kulturaren Euskal Behatokiaren **Estatistika eta Azterketa** Bilduma
Colección de **Estadística y Estudios** del Observatorio Vasco de la Cultura

15

# Finantzaketa eta gastu publikoa kulturan EAE 2010

EMAITZEN TXOSTENA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

Kulturaren Euskal Behatokiaren **Estatistika eta Azterketa** Bilduma
Colección de **Estadística y Estudios** del Observatorio Vasco de la Cultura

15

# Finantzaketa eta gastu publikoa kulturan EAE 2010

## EMAITZEN TXOSTENA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

**Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia**
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2013

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke: http://www.bibliotekak.euskadi.net/WebOpac

Argitaraldia:
1.a, 2013ko apirila

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila

Internet:
www.euskadi.net

Argitaratzailea:
Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
C/ Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Diseinua eta maketazioa:
Miren Unzurrunzaga Schmitz

Lege gordailua: VI 197-2013

# AURKIBIDEA

AURKEZPENA 6

1. AZTERLANAREN HELBURUAK ETA METODOLOGIA 7

1.1. Helburuak 7
1.2. Fitxa teknikoa 7
1.3. Azterlanaren behaketa-eremua 8
1.4. Aztertutako kontzeptuak 9
1.5. Gastua finkatzeko prozesua 12
1.6. Segida historikoa 14

2. GASTU LIKIDATUAREN BILAKAERA KULTURAN 2008-2010 15

2.1. Kulturan egindako gastuaren bilakaera 15
2.2. Kulturan egindako gastuak administrazio publikoen aurrekontuetan duen garrantzi erlatiboa 16
2.3. Bestelako sail eta arloek kulturan egindako gastua 17
2.4. Erakunde bakoitzak kulturan egindako gastuaren bilakaera 18
2.5. Hedabideetan egindako gastuaren bilakaera 27

3. KULTURAN EGINDAKO GASTUA ADMINISTRAZIO-MAILEN ARABERA 29

3.1. Transferentzien fluxuak administrazio-mailen arabera 29
3.2. Kulturan egindako gastua kapitulu ekonomikoaren eta administrazio-mailen arabera 30
3.3. Kulturan egindako gastua kultura-esparruaren eta administrazio-mailen arabera 35

4. ADMINISTRAZIO PUBLIKOEK KULTURAN EGINDAKO GASTUA 40

4.1. Transferentzien fluxuak administrazio-mailen artean 40
4.2. Jatorrian kontsolidatutako gastua 41
4.3. Helmugan kontsolidatutako gastua 44

5. KULTURA-ARLOKO ENPLEGU PUBLIKOA EAEn 49

6. ONDORIOAK 52

ERANSKINAK 56

**I. Eranskina** 2010ean azterlanean parte hartu duten erakunde autonomoak, sozietate publikoak eta fundazioak, lurralde historikoen arabera 56

**II. Eranskina** 2010ean azterlanean parte hartu duten udalak, biztanleria-kopuruaren arabera 58

**III. Eranskina** Emaitzen laburpena kultura-esparruen arabera 60

**IV. Eranskina** Kultura Ministerioaren gastua EAEn 73

# AURKEZPENA

Kulturaren Euskal Behatokiaren helburuen esparruan, kulturan egindako gastu publikoa jakitea ezinbesteko tresna da, bai kulturaren administrazioek beren politikak orienta ditzaten, bai sektoreek estrategiak bideratzeko informazioa izan dezaten, eta bai herritarrek funts publikoen helmuga zein den jakin dezaten.

Borondate politikoak aurrekontuetan adierazten dira, hein handi batean. Horien analisiak, berriz, kulturak politika publikoen esparru orokorrean duen garrantzia objektiboki ikusteko bidea ematen du, baita aurrekontu horren banaketa ere. Horrela, administrazioaren logika funtzionala azter daiteke (zer punturaino gailentzen den administrazioaren zuzkidura itundutakoaren eta sektore pribatuari emandako sostenguaren aldean), bai eta ezarritako lehentasunak ere, kulturako azpisektoreei emandako sostenguari dagokionez. Hori guztia, gehieneko eraginkortasuna eskatzen duen eta kulturako gastu publikoaren garrantzia defendatzeko argudio sendoak behar dituen krisi-egoeran. Hori dela eta, argudio horiek ahal bezain besteko informazio objektiboa behar dute euskarri gisara.

*EAEko Finantzaketa eta gastu publikoa kulturan estatistika*ren xede orokorra da EAEko herri-administrazio nagusiak egiten ari diren ekarpen ekonomikoaren eta kultura inbertsioaren ikuspegi osoa eskaintzea.

Azterlanaren bigarren ediziorako bildutako datuak 2010. urteari dagozkio. Bere ekarpen nagusia da, batetik, 2008 eta 2010 urteen arteko alderaketak egin ahal izatea eta, bestetik, datuen tratamenduari dagokionez, EAEko hiru administrazio-mailen mendeko erakunde publikoen eta fundazioen inguruabarretara egokitutako finkapen-metodologia aplikatu izana.

Azterlanak informazio ugari bildu eta daturik azpimarragarrienak atera ditu; gainera, administrazio publikoetako kultura-arloko enpleguari buruzko informazioa ere jasotzen du.

Nolanahi ere, ikerlan estatistiko orok eskatzen du aztertu beharreko eragileen konpromisoa. Ezinbesteko baldintza da hori emaitza fidagarriak eta adierazgarriak lortzeko. Hala, bada, Kulturaren Euskal Behatokiak eskerrak eman nahi dizkie azterlanean parte hartu duten erakundeei, beren inplikazioa eta lankidetzagatik, modu horretan estatistika-eragiketa garrantzitsu hau sendotu dadin EAEn kulturan egindako gastu publikoaren erreferentziazko azterlan gisa.

# 1. AZTERLANAREN HELBURUAK ETA METODOLOGIA

## 1.1. Helburuak

Finantzaketa eta gastu publikoa kulturan estatistikaren helburua da, oinarrian, EAEko administrazio publiko nagusiak kulturan egiten ari diren ekarpen ekonomikoen eta inbertsioaren muntaren panoramika eskaintzea. Eta, zehazkiago, honako hauek:

- EAEko administrazio publikoko administrazio-maila ezberdinek kulturan egiten duten gastua zein den jakitea.
- Kulturan egindako gastu publikoaren izaera ekonomikoa aztertzea.
- Kulturan egindako gastu publikoaren banaketa aztertzea kultura-esparruen eta -sektoreen arabera.
- EAEn kulturan egiten den gastu publikoaren ikuspegi orokorra, osoa eta hobetua ematea.
- Bana-banako informazioa eta alderaketari zein bilakaerari buruzko erreferentziak ematea azterlanean parte hartu duen erakunde bakoitzari kulturan egin duten gastuari dagokionez.
- Euskal administrazio publikoek komunikabideetan egiten duten gastuari buruzko informazioa biltzea.
- Kulturako enplegu publikoaren hurbilketa izatea.

## 1.2. Fitxa teknikoa

| Eragiketaren izena |
| --- |
| Euskal Autonomia Erkidegoko kulturako finantzaketa eta gastu publikoa |
| **Eragiketaren estatusa** |
| Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak egina. Eustatek ofizialdua. |
| **Aldizkakotasuna** |
| Bi urtez behin |
| **Eragiketa-mota** |
| Erroldan oinarritua: 5.000 biztanletik gorako udalak; baldintza jakin batzuk betetzen dituzten erakunde autonomoak, sozietate publikoak eta fundazioak[1] .<br>Laginetan oinarrituta: 5.000 biztanletik beherako udalak. |

[1] 1.3. atalean zehazten dira azterlanean sartzeko irizpideak.

…/…

.../...

| Informazio-bilketa |
|---|
| Fitxa egituratuaren (paperezko euskarrian zien euskarri informatikoan), laguntza teknikoaren eta lankidetza espezifikoaren bitartez informazioa zuzenean biltzeko prozesua |
| **Informazioa biltzeko aldia** |
| 2011ko azaroa - 2012ko martxoa |
| **Informazioaren erreferentzia-urtea** |
| 2010 |
| **Erantzun-maila** |
| Erakundeen % 100 |
| **Landa-lana egiteko ardura izan duen enpresa** |
| Siadeco |
| **Diseinua kontrastatzeko eta baliozkotzeko prozesua** |
| Administrazio publikoetako arduradunak, azterlana abiarazi baino lehenagoko hainbat lan-taldetan parte hartu dutenak. |

## 1.3. Azterlanaren behaketa-eremua

Estatistika honek azterketa oinarri hauek hartu ditu barnean:

- Eusko Jaurlaritzari, Foru Aldundiei eta 5.000 biztanletik gorako udalerrietako udalei (68) egindako errolda-izaerako landa-lana.
- 5.000 biztanletik beherako udalerrietan (82 udal) toki-administrazioen lagin batekin egindako landa-lana. Kasu horretan, udalen % 45ekoa izan da estaldura eta 5.000 biztanletik beherako udalerrietako biztanleen % 49koa.
- EAEko administrazio baten edo hainbaten mendekoak diren, edo horietan % 100eko partaidetza duten erakunde autonomo, sozietate eta fundazio publikoei egindako landa-lana. Multzo honetan sartzen dira partaidetza publikodun erakundeak baldin eta, 2010ean, administrazioaren aldetik 500.000 eurotik gorako transferentziak jaso bazituzten. I. eranskinean dago erakunde horien zerrenda osoa (50 erakunde).

Ondorengo figuran xehatzen da azterketaren irismena, erakunde mota desberdinen arabera.

**1. figura** Aztergai den unibertsoa eta laginaren irismen-ratioak

| | UNIBERTSOA | | LAGINA | | LAGINAREN IRISMENA | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Entitate kop. | Biztanleria | Entitate kop. | Biztanleria | % entitate | % biztanleria |
| Udalak | 251 | 2.169.038 | 150 | 2.049.079 | 59,8 | 94,5 |
| <5.000 biztanle | 183 | 235.472 | 82 | 115.513 | 44,8 | 49,1 |
| 5.000-20.000 biztanle | 50 | 532.971 | 50 | 532.971 | - | - |
| >20.000 biztanle | 15 | 628.055 | 15 | 628.055 | - | - |
| Hiriburuak | 3 | 772.540 | 3 | 772.540 | - | - |
| Erakunde autonomoak, sozietate publikoak eta fundazioak | 50 | - | 50 | - | - | - |
| Foru-aldundiak eta Eusko Jaurlaritza | 4 | 2.169.038 | 4 | 2.169.038 | - | - |
| GUZTIRA | 305 | 2.169.038 | 204 | - | 66,9 | - |

## 1.4. Aztertutako kontzeptuak

Azterlan hau ez da mugatu kultura-sailek eta -arloek kudeatutako aurrekontuarekin lotutako begirada espezifikora; aitzitik, sail horiek kudeatzen ez dituzten baina azterlan honetan kultura-gastutzat hartu diren aurrekontu-partidak ere jaso ditu. Informazio horretatik abiatuta, honako kontzeptu hauen arabera sailkatu da gastua:

### Kultura-helmuga: esparruen deskribapena

#### Ondarea

- Ondarea eta arkeologia. Arkitektura- eta arkeologia-ondarea kontserbatzea, zaharberritzea, birgaitzea, aztertzea, babestea eta hedatzea. Dokumentu-ondarea eta bibliografia-ondarea ez dira atal honen barnean hartu, ezta museoen esparruaren zati den ondarea ere.
- Liburutegiak. Liburutegietako funtsak mantentzea eta erostea, baita liburutegiak sustatzen dituzten jarduerak ere. Era berean, bibliografia-ondarea katalogatzeko, babesteko eta zaharberritzeko faseak ere atal honen barnean hartu dira, baita liburutegien esparru fisiko edo juridikoaren barruan gauzatzen ez diren kasuetan ere.
- Artxiboak. Dokumentu-artxiboak eta -ondarea sortzea, mantentzea, katalogatzea, hedatzea, eta horiekin lotutako funtsak erostea.
- Museoak. Museoak sortzea, mantentzea, hedatzea eta horiekin lotutako funtsak erostea.

## Artea eta industriak

- Antzerkia eta dantza. Antzerki- eta dantza-ikuskizunak; arte eszenikoen esparru profesionaleko sorkuntzan, ekoizpenean eta hedapenean laguntzea. Era berean, zirkua eta antzerkiaren inguruko beste hainbat jarduera eszeniko ere atal honen barnean hartzen dira, opera izan ezik.
- Musika. Zuzeneko musika-emanaldiak, ikuskizun lirikoak eta industria fonografikoa (sorkuntza, ekoizpen nahiz hedapenerako laguntzak). Musika-eskolei dagokienez, arautu gabeko hezkuntza eta prestakuntza soilik sartzen dira.
- Ikusizko arteak. Pintura- eta eskultura-erakusketak, eta ikusizko beste hainbat arteen erakusketak; sorkuntza, ekoizpen eta hedapenerako laguntzak.
- Zinema eta ikus-entzunezkoak. Lan zinematografikoa eta ikus-entzunezkoa: ikus-entzunezkoak sortzeko, ekoizteko eta hedatzeko laguntzak.
- Literatura eta argitalpena. Argitalpenak eta literatura sustatzea: idatzizko lanak sortzeko, ekoizteko eta hedatzeko laguntzak.
- Kultura-ekintza. Espezializatu gabeko jaialdiak, ekipamendu komunitario eta soziokulturaletatik bultzatutako programak, balio anitzeko kultura-ekipamenduak eta -zerbitzuak (gizarte-zentroak, kultura-etxeak, etab.) amateurismoa eta kultura-partaidetza hartzen dira atal honen barnean.
- Bertsolaritza. Egitura eta zerbitzu egonkorrak mantentzeko eta babesteko gastua hartzen da atal honen barnean (bertso-eskolak, elkarteak, eta abar babestea).

## Jaiak eta herri-kultura

Udalerrietako herri-jaiak eta zaindarien jaiak ospatzeko jarduerak eta emanaldiak, baita herri-kulturarekin eta kultura tradizionalarekin lotutako emanaldiak eta jarduerak ere. Jaien barnean hartutako gastuen multzoa kultura-gastutzat hartu da.

## Zuzendaritza eta zerbitzu orokorrak

Kultura-azpisektore zehatz bati egotzi ezin zaizkion eta kultura-arloaren funtzionamendukoak diren gastu orokorrak hartzen dira atal honen barnean. Kultura-gastu espezifikoa egozteko kalkulua egin da zerbitzu horiek kultura-alorretik kanpoko beste zenbait esparru eta sektore ere kudeatu dituzten kasuan, hala nola, kirol-, gazteria-, edota euskara-sektoreetan.

### Hedabideak

Komunikabide publikoei, pribatuei eta sozialei laguntzea eta horiek finantzatzea hartzen da atal honen barnean. Kulturaren azpisektore gehigarritzat jo dira hedabideak, eta horrenbestez, ez dira sartu guztizko kultura-gastuari buruzko datuen barnean.

## Gastuaren izaera ekonomikoa: aztertutako partidak

Azterketa honetarako, aurrekontu publikoetako gastuaren sailkapen ekonomikoa erabili da, honako kapitulu hauek biltzen dituena:

### Gastu arruntak

- I. kapitulua. Langileria-gastuak: soldatak eta ordainsariak biltzen ditu, bai eta enplegatzaileak ordaindu beharreko kuotak, prestazioak eta gastu sozialak ere.
- II. kapitulua. Ondasunetan eta zerbitzuetan egindako gastuak: zenbait gastu arrunt biltzen dituzte, hala nola, erosketen kudeaketa, zerbitzuen azpikontratazioa eta ekipoak konpontzeko gastuak.
- III. kapitulua. Finantza-gastuak: jaso diren edozein motatako zorren, gordailuen eta finantzen interesen ondoriozko gastuak.
- IV. kapitulua. Transferentzia arruntak: onuradunen kontrapartidarik gabeko eragiketa arruntak finantzatzeko bestelako erakunde publiko nahiz pribatuetara bideratutako kredituak biltzen dituzte.

### Kapital-gastuak

- VI. kapitulua. Inbertsio errealak: kultura-azpiegitura berrietarako, arte-lanetarako, hornidurak berritzeko eta abarretarako inbertsio iraunkorrak egiteko behar diren zuzkidurak.
- VII. kapitulua. Kapital-transferentziak inbertsioak finantzatzera bideratutako zuzeneko kontraprestaziorik gabeko ordainketak.

### Finantza-aktiboak eta -pasiboak

- VIII. kapitulua. Finantza-aktiboak: finantza-aktiboak erosteko eta gordailuak eta fidantzak eratzeko kredituak.
- IX. Kapitulua. Finantza-pasiboak: zorrak amortizatzera eta hirugarrenek eratutako gordailuak eta fidantzak itzultzera bideratutako kredituak.

### Kulturako enplegua

Kultura-arloan enplegatutako langileei buruzko informazioa biltzen da, sailkapen honen arabera:

- Administrazioko enplegua: I. kapituluko funtsen bidez finantzatutako erakundeen enpleguari dagokio.
- Azpikontratatutako enplegua: erakundearen funtzionamendurako azpikontratatutako langileria, gainerako kapituluetako (II.a eta IVa) funtsen bidez finantzatutakoa, ekipamenduetara eta Administrazioko zerbitzuetara bideratzen den heinean.

Batean zein bestean, bi profil edo lanbide-eginkizun mota bereizten dira:

- Kultura-kudeaketarekin eta -jarduerarekin lotutako langileria: Kultura-arloko langileak dira kudeaketa eta administrazioko zuzendariak, teknikariak eta langileak (zuzendarien profilaren barruan sartzen dira politikari liberatuak —zinegotziak, adibidez—, I. kapituluko funtsen bidez ordaintzen badira).
- Laguntza-langileak eta zeharkakoak: Kultura-arloak kudeatutako aurrekontu-partidek finantzatutako laguntza-langileak eta zeharkakoak, besteak beste, garbiketa, mantentze-lanetako teknikariak (muntatzaileak, argiketariak, garraiolariak, etab.) eta segurtasunekoak.

## 1.5. Gastua finkatzeko prozesua

Azterlan honetan bildutako informazioa aztertutako erakundeek obligazio aitortuen fasean likidatutako 2010eko aurrekontuetan oinarrituz lortu da. Lehen informazio-maila horri **likidatutako gastua** deritzo, eta azterketa-unibertsoa osatzen duten entitateek kulturara bideratutako gastu «gordina» zein den jakiteko aukera ematen digu.

Informazio horretatik abiatuta egin da gastuaren kontsolidazioa. Garbiketa-prozesu horren bitartez, azterlanean parte hartu duten erakundeen arteko transferentzia ekonomikoetatik eratorritako kontabilitate bikoitza neutralizatzen da (gastu eta diru-sarreren IV. eta VII. kapituluak). Horri esker, azterlanak kulturan egindako gastu “garbia”ri buruzko datuak eskaintzen ditu. Txostenean, kontsolidazio-prozesuaren ondoren lortutako gastuari **kulturako gastua** deritzo.

EAEko kulturako gastu publikoaren ikuspuntu oso eta globala emateko helburuarekin, kontsolidazio-prozesu bikoitza egin da:

- Administrazio-mailen araberako kontsolidazioa: Eusko Jaurlaritzaren, foru-aldundien eta udalen gastuari buruzko datuak izateko, horien mendeko erakunde autonomoen, sozietate publikoen eta fundazioen kontsolidazio-prozesua egin da.

Sektore publikoa barne hartzen duen logikan oinarrituta, gastu publikotzat jo da beren baliabideen gehiengoa (% 50, gutxienez ere) EAEko administrazio publiko batetik edo gehiagotatik datorren sozietate publikoen edo fundazioen gastua. EAEko administrazio publikoen ekarpena diru-sarreren % 50eko gutxienekora iristen ez denean, ostera, erakunde horietara egindako transferentziak soilik sartzen dira analisian, baina horien gastu guztiek ez dira gastu publikotzat jo.

Metodologiaren ikuspuntutik, modu desberdinean aplikatu dira estatistika-eragiketak barne hartzen dituen erakunde autonomoen, sozietate publikoen eta fundazioentzako finkapen-mekanismoak, horien izaera juridikoaren eta osaeraren arabera (kontrola eta ekarpenen bolumena aintzat hartuta). Horrela, aplikatutako metodoa hiru tratamendu ezberdinetatik abiatzen da, erakundeen ezaugarrien arabera, beheko taula honetan ikus daitekeen gisara:

<table>
<tr><th>Entitate mota</th><th>Osaera</th><th>Ekarpenen ezaugarriak</th><th>Aplikatutako kontsolidazio mota</th></tr>
<tr><td>Erakunde autonomoak</td><td>Entitate bakarra</td><td>—</td><td>Integrazio globala</td></tr>
<tr><td rowspan="5">Sozietate publikoak eta fundazioak</td><td rowspan="2">Entitate bakarra</td><td>Entitate eratzailearen diru-sarreren ekarpena baliabideen % 50etik gorakoa da.</td><td>Integrazio globala</td></tr>
<tr><td>Entitate eratzailearen diru-sarreren ekarpena baliabideen % 50etik beherakoa da.</td><td>Kontsolidaziorik ez</td></tr>
<tr><td rowspan="3">Kide anitzeko taldea (bi entitate edo gehiago)</td><td>Baliabideen % 60 baino gehiago osatzen duten laguntzak ematen dituen entitate bat du.</td><td>Integrazio globala (ekarpena handiena egiten duen entitatearen aldetik)</td></tr>
<tr><td>Ez du baliabideen % 60 baino gehiago osatzen duten laguntzak ematen dituen entitaterik, baina laguntza publikoak % 50etik gorakoak dira.</td><td>Integrazio proportzionala</td></tr>
<tr><td>Erakundearen baliabideen % 50 baino gutxiago osatzen duten laguntza publikoak ditu.</td><td>Kontsolidaziorik ez</td></tr>
</table>

Lehenengo prozesuaren emaitzek datuak administrazio-mailaren araberako kulturako gastuari buruzko datuak ematen ditu, 3. kapituluan aurkezten direnak.

- EAEko administrazioen arteko kontsolidazioa: Eusko Jaurlaritzaren, foru-aldundien eta udalen arteko transferentziak identifikatzean oinarrituta. Bigarren prozesu honen

emaitzak 4. kapituluan azaltzen dira, eta informazioa ematen du EAEko administrazio publiko guztiek jatorrian eta helmugan egindako kulturako gastu finkatuari buruz.

Aintzat hartutako metodologiaren azken helburua da sektore publikoaren erretratu zehatz eta osoa ematea hiru administrazio-mailetarako eta EAE osorako.

## 1.6. Segida historikoa

Kulturaren Euskal Behatokiak 2008ko datuak bilduz abiarazi zuen *Finantzaketa eta Gastu Publikoa Kulturan EAE estatistika*ren lehen edizioa. Estatistika horrekin eman zitzaion hasiera denborazko segida egonkor bati; segida horrek abiapuntu eta erreferentzia gisa balio du administrazio publikoek kulturan egindako gastuaren bilakaera aztertzeko.

Estatistikaren bigarren edizioak 2010. urteari dagokion informazioa biltzen duenez gero, alderaketak egiteko aukera eman du. Segidak bere mugak ditu, ordea, eta horrek joerak ikustea edo ondorioak ateratzea eragozten badu ere, egoera ezberdinen irudiak emateko abantaila eskaintzen du.

Izan ere, 2008an, hots, krisiaren aurreko testuinguruan, kulturan egiten zen gastu publikoari buruzko datuak izateari esker, hasierako erreferentziak kultura-politika ulertzeko garai eta modu bat erakusten du. Bigarren edizio honekin, eta segida historikoa egonkortzen den heinean jakin ahalko da zer garrantzi izan duen kultura-politikak administrazio baten aurrekontuaren esparru orokorrean, aurrekontuak sektoreetan izandako banaketan, eta ekarpen publiko hori kudeatzeko moduan.

Edizio honetan gaineratutako hobekuntza metodologikoak direla eta, ezin dira adierazle guztiak alderatu. Hala eta guztiz ere, txostenaren bigarren kapituluan aurkezten dira EAEko erakunde publikoek kulturan egindako gastu likidatuaren bilakaerari dagozkion datuak.

Gainera, azterlanean parte hartu duten erakunde guztiei ematen zaizkien banakako txostenen bidez erakunde horiek ere beren segida historikoa izateko aukera izango dute.

# 2. KULTURA GASTUAREN BILAKAERA 2008-2010

## 2.1. Kulturan egindako gastu likidatuaren bilakaera

EAEko administrazio publikoen kulturako gastu likidatua % 3,4 jaitsi zen 2008 eta 2010 artean, hau da, 612,8 milioi eurotik 592,3 milioi eurora igaro zen. Hona hemen aldaketa horren arrazoiak: foru-aldundien gastu likidatuaren murrizketa, 104,7 milioi eurotik 89,4 milioi eurotara igaro baitzen (% 14,6); erakunde autonomoek, sozietate publikoek eta fundazioek egindako gastu likidatuaren jaitsiera, 140,5 milioi eurotik 131,8 milioi eurora igaro baitzen (% 6,2); eta, maila txikiagoan, udalen gastu likidatuaren murrizketa, % 2,1 egin baitzuen behera (301,4 milioi eurotik 294,9 milioi eurora).

Joera orokorraren kontra, Eusko Jaurlaritzak bere kulturako gastu likidatua areagotu egin zuen: 66,2 milioi eurotik 76 milioi eurora.

**2. figura** Kulturan egindako gastu likidatua, entitate motaren arabera
(eurotan) 2008-2010



## 2.2. Kulturan egindako gastu likidatuak administrazio publikoen aurrekontuetan duen garrantzi erlatiboa

Kulturako gastuak aurrekontu osoarekiko duen garrantzia igo egin zen Eusko Jaurlaritzari dagokionez, esan bezala, 2008 eta 2010 urteen artean (% 0,6tik % 0,7ra). Nolanahi ere, kultura gastua % 14,8 igo arren, zenbateko erlatiboetan garrantzia hori murritza da, administrazio autonomikoak bere eskumen-betebeharren ondorioz kulturaz kanpoko arloetara bideratzen duen gastu-bolumenaren aldean. Foru-aldundietan, ostera, kultura bideratutako ahalegin ekonomikoak behera egin zuen (% 3,6tik % 2,9ra), baita udaletan ere (% 9,3tik % 8,7ra).

**3. figura** Kulturan egindako gastu likidatua guztizko aurrekontuei dagokienez, administrazio-mailaren arabera (%) 2008-2010




Udal txikienek (5.000 biztanletik beherakoek) egin zuten kulturara bideratutako aurrekontu-murrizketarik handiena, hots, ehuneko bi puntu 2008. ekitaldiarekin alderatuta. Aipatzekoa da mota horretako udalerrietan egiten zela kultura ahaleginik handiena, beren aurrekontuen % 10,2 erabiltzen baitzuten kultura-arloan. Hiriburuek, berriz, 2008an izandako ekonomia-konpromisoari eutsi zioten 2010ean ere.

**4. figura** Kulturan egindako gastu likidatua udalen guztizko aurrekontuei dagokienez, udalerriaren tamainaren arabera (%) 2008-2010




## 2.3. Bestelako sail eta arloek kulturan egindako gastua

Kulturaz kanpoko arlo eta sailetatik kulturara bideratutako gastua Eusko Jaurlaritzaren guztizkoaren % 13,2 da, eta udalen % 15,2. Foru-aldundietan, berriz, % 0,1. Eusko Jaurlaritzari dagokionez, arrazoi nagusia da beste sail batzuek finantzatzen dituztela musika-eskolak; udaletan, ordea, azpiegiturak egokitzeko lanek eta ondarearen zaharberritze-lanek azaltzen dute, hein batean, beste arlo batzuek kulturan duten partaidetza.

**5. figura** Kulturan egindako gastu likidatua, gastu hori egin duten sailen eta administrazio-mailaren arabera

(euroak eta % -ak) 2008-2010

| Entitate mota | Urtea | Kultura Saila | | Bestelako arloak | | Kultura gastua guztira | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | € | % | € | % | € | % horizontala |
| Eusko Jaurlaritza | 2008 | 57.229.844 | 86,5 | 8.958.109 | 13,5 | **66.187.953** | **100,0** |
| | 2010 | 65.952.485 | 86,8 | 10.061.917 | 13,2 | **76.014.402** | **100,0** |
| Foru-aldundiak | 2008 | 103.549.920 | 98,9 | 1.128.220 | 1,1 | **104.678.140** | **100,0** |
| | 2010 | 89.388.424 | 99,9 | 50.000 | 0,1 | **89.438.424** | **100,0** |
| Udalak | 2008 | 261.180.398 | 86,6 | 40.245.159 | 13,4 | **301.425.557** | **100,0** |
| | 2010 | 250.000.083 | 84,8 | 44.970.399 | 15,2 | **294.970.482** | **100,0** |

Arreta udalen egoeraren bilakaeran jarriz gero, kultura-arloetako gastua % 4,3 jaitsi dela ikusten da (2008ko 261,2 milioi eurotik 2010eko 250 milioi eurora), beste udal-arlo batzuek kulturan egindako gastua, berriz, % 11,7 igo zen (2008ko 40,2 milioi eurotik 2010eko 45 milioi eurora). Oro har, kulturako gastua 6,5 milioi euro gutxiagokoa izan zen 2010ean.

Udalerri txikienetan izan ezik, horietan bestelako arloek kulturan egindako gastua % 55,2 murriztu baitzen 2008 eta 2010 artean, gainerako udaletan eta, bereziki, hiriburuetan izandako igoerek azaltzen dute, modu adierazkorrean, beste arlo batzuek kulturako gastuan parte-hartzearen goranzko joera.

**6. figura** Kulturan egindako udal-gastu likidatua, gastu hori egin duten sailen eta udalerriaren tamainaren arabera

(euroak eta % -ak) 2008-2010

| Udalerriaren tamaina | Urtea | Kultura Saila | | Bestelako arloak | | Kultura gastua guztira | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | € | % | € | % | € | % horizontala |
| < 5.000 biztanle | 2008 | 37.225.044 | 84,2 | 7.004.246 | 15,8 | **44.229.290** | **100,0** |
| | 2010 | 32.740.976 | 91,3 | 3.134.856 | 8,7 | **35.875.832** | **100,0** |
| 5.000-20.000 biztanle | 2008 | 72.831.331 | 97,0 | 2.239.908 | 3,0 | **75.071.239** | **100,0** |
| | 2010 | 69.167.088 | 94,9 | 3.685.649 | 5,1 | **72.852.737** | **100,0** |
| > 20.000 biztanle | 2008 | 57.897.542 | 94,9 | 3.087.651 | 5,1 | **60.985.193** | **100,0** |
| | 2010 | 57.432.169 | 92,7 | 4.532.084 | 7,3 | **61.964.253** | **100,0** |
| Hiriburuak | 2008 | 93.226.481 | 77,0 | 27.913.354 | 23,0 | **121.139.835** | **100,0** |
| | 2010 | 90.659.850 | 72,9 | 33.617.810 | 27,1 | **124.277.660** | **100,0** |
| Udalen gastua guztira | 2008 | 261.180.398 | 86,6 | 40.245.159 | 13,4 | **301.425.557** | **100,0** |
| | 2010 | 250.000.083 | 84,8 | 44.970.399 | 15,2 | **294.970.482** | **100,0** |

## 2.4. Erakunde mota bakoitzak kulturan egindako gastu likidatuaren bilakaera

Egindako gastu likidatuaren bilakaera aztertzeak argi uzten du gastu publikoaren gehiengoa gastu arruntera bideratu zela: Eusko Jaurlaritzaren, foru-aldundien eta udalen 10 eurotik 6 eta 8 bitartean; eta erakunde autonomoen, sozietate publikoen eta fundazioen 10 eurotik 9 euro inguru.

Eusko Jaurlaritzaren gastuaren banaketan hauteman daitekeen ezberdintasun adierazgarriena 2010ean egindako kapital-gastuak areagotzeari dagokio, azken horiek aurrekontuaren % 26,4 osatu baitzuten ekitaldi horretan.

Foru-aldundiek 2008an egindako banaketaren oso antzekoa egin zuten 2010ean, baina kapitulu guztietan izan ziren jaitsierak, langileria-gastuetan izan ezik.

Udaletako gastu arrunten eta kapital-gastuen arteko banaketak ere antzeko proportzioak ditu 2008an eta 2010ean. Alderik nabarmenena kapital-gastuen artean ikus daiteke: inbertsio errealak murriztu egin dira eta kapital-transferentziak, berriz, hazi.

Erakunde autonomo, sozietate publiko eta fundazioetan oso garrantzia handia izaten jarraitu dute gastu arruntek, baina jaitsierak izan dira kapitulu guztietan, langileria-gastuetan, kapital-transferentzietan eta finantza-aktiboetan izan ezik.

**7. figura** Kulturan egindako gastu likidatua, kapitulu ekonomikoaren eta entitate motaren arabera

(euroak eta % -ak) 2008-2010

| Kapitulu ekonomikoa | Urtea | Eusko Jaurlaritza | | Foru-aldundiak | | Udalak | | Erakunde autonomoak eta sozietate publikoak | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | € | % | € | % | € | % | € | % |
| I. kap. Langileria-gastuak | 2008 | 3.626.677 | 5,5 | 14.807.581 | 14,2 | 48.758.117 | 16,2 | 58.043.702 | 41,3 |
| | 2010 | 4.120.971 | 5,4 | 16.347.069 | 18,3 | 50.850.782 | 17,2 | 61.878.605 | 46,9 |
| II. kap. Ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak | 2008 | 5.675.049 | 8,6 | 13.813.178 | 13,2 | 80.321.407 | 26,6 | 68.946.223 | 49,1 |
| | 2010 | 5.706.970 | 7,5 | 11.583.847 | 12,9 | 81.381.507 | 27,6 | 55.795.611 | 42,3 |
| III. kap. Finantza-gastuak | 2008 | 0 | 0,0 | 120 | 0,0 | 127.824 | 0,0 | 420.201 | 0,3 |
| | 2010 | 0 | 0,0 | 0 | 0,0 | 271.640 | 0,1 | 282.720 | 0,2 |
| IV. kap. Transferentzia arruntak | 2008 | 38.411.071 | 58,0 | 35.395.313 | 33,8 | 100.531.537 | 33,4 | 1.888.991 | 1,3 |
| | 2010 | 42.318.853 | 55,7 | 28.438.097 | 31,8 | 94.901.183 | 32,2 | 1.482.300 | 1,1 |
| VI. kap. Inbertsio errealak | 2008 | 1.508.434 | 2,3 | 20.238.750 | 19,3 | 67.151.950 | 22,3 | 11.166.575 | 8,0 |
| | 2010 | 5.992.248 | 7,9 | 15.553.405 | 17,4 | 48.422.392 | 16,4 | 10.206.794 | 7,8 |
| VII. kap. Kapital-transferentziak | 2008 | 12.839.710 | 19,4 | 17.207.794 | 16,4 | 4.391.420 | 1,5 | 11.944 | 0,0 |
| | 2010 | 14.044.394 | 18,5 | 14.331.562 | 16,0 | 19.013.688 | 6,5 | 2.132.571 | 1,6 |
| VIII. kap. Finantza-aktiboak | 2008 | 4.127.012 | 6,2 | 3.215.404 | 3,1 | 6.000 | 0,0 | 44.041 | 0,0 |
| | 2010 | 3.830.966 | 5,0 | 3.184.444 | 3,6 | 10.372 | 0,0 | 58.109 | 0,1 |
| IX. kap. Finantza-pasiboak | 2008 | 0 | 0,0 | 0 | 0,0 | 137.302 | 0,0 | 0 | 0,0 |
| | 2010 | 0 | 0,0 | 0 | 0,0 | 118.918 | 0,0 | 0 | 0,0 |
| GUZTIRA | 2008 | 66.187.953 | 100,0 | 104.678.140 | 100,0 | 301.425.557 | 100,0 | 140.521.677 | 100,0 |
| | 2010 | 76.014.402 | 100,0 | 89.438.424 | 100,0 | 294.970.482 | 100,0 | 131.836.710 | 100,0 |

EAEko administrazio publikoetako kultura-politikek eredu egonkorra dute, ñabardura jakin batzuk gorabehera, zer sektoretan esku hartzen duten aintzat hartuz gero. Hala, bada, Eusko Jaurlaritzak nabarmen areagotu zuen 2010ean arteetara eta kultura-industrietara bideratutako aurrekontua, eta bere horretan utzi zuen ondarera bideratutakoa; foru-aldundiek, ordea, ondarean jarri zuten lehentasuna, beste behin, arlo horretan dituzten eskumenekin bat etorrita.

Arteen eta kultura-industrien arloa lehentasunezkoa da Eusko Jaurlaritzarentzat, udalentzat eta erakunde autonomo, sozietate publiko zein fundazioentzat, izan ere, guztizko gastuaren erdia baino gehiago baliatu baitzuten arlo horretan.

**8. figura** Kulturan egindako gastu likidatua, kultura-esparruen eta entitate motaren arabera

(euroak eta % -ak) 2008-2010

| Ámbitos | Urtea | Eusko Jaurlaritza | | Foru-aldundiak | | Udalak | | Erakunde autonomoak eta sozietate publikoak | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | € | % | € | % | € | % | € | % |
| Ondarea guztira[1] | 2008 | 30.496.030 | 46,1 | 70.406.879 | 67,3 | 60.758.816 | 20,2 | 24.972.034 | 17,8 |
| | 2010 | 30.388.806 | 40,0 | 62.258.229 | 69,6 | 54.216.125 | 18,4 | 34.137.709 | 25,9 |
| Arteak eta industriak guztiras[2] | 2008 | 34.437.505 | 52,0 | 31.131.223 | 29,7 | 163.392.612 | 54,2 | 100.863.641 | 71,8 |
| | 2010 | 42.417.764 | 55,8 | 24.742.436 | 27,7 | 186.113.524 | 63,1 | 82.539.474 | 62,6 |
| Jaiak eta herri-kultura | 2008 | 0 | 0,0 | 281.023 | 0,3 | 37.112.523 | 12,3 | 6.077.030 | 4,3 |
| | 2010 | 31.910 | 0,0 | 24.334 | 0,0 | 31.830.164 | 10,8 | 5.699.264 | 4,3 |
| Zuzendaritza eta zerbitzu orokorrak | 2008 | 1.254.418 | 1,9 | 2.859.015 | 2,7 | 40.161.606 | 13,3 | 8.608.972 | 6,1 |
| | 2010 | 3.175.922 | 4,2 | 2.413.425 | 2,7 | 22.810.669 | 7,7 | 9.460.263 | 7,2 |
| GUZTIRA | 2008 | 66.187.953 | 100,0 | 104.678.140 | 100,0 | 301.425.557 | 100,0 | 140.521.677 | 100,0 |
| | 2010 | 76.014.402 | 100,0 | 89.438.424 | 100,0 | 294.970.482 | 100,0 | 131.836.710 | 100,0 |

[1] Arlo hauek hartzen ditu barnean: ondarea eta arkeologia; liburutegiak; museoak eta artxiboak.

[2] Honako hauek hartzen ditu barnean: antzerkia eta dantza; musika; ikusizko arteak; zinema eta ikus-entzunezkoak; literatura eta edizioa; kultur ekintza eta bertsolaritza.

## Eusko Jaurlaritza

Eusko Jaurlaritzan transferentziei dagozkien kapituluek (IV.a eta VII.a) dute garrantzi handiena: 2010ean, kultura gastuaren hiru laurden beste entitate batzuetarako transferentziei dagozkie; horien erdia baino gehiago transferentzia arruntek osatzen dute (42,3 milioi euro) eta % 18,5 kapital-transferentziek (14 milioi euro).

2008tik 2010era artean gastu arruntak ehunekotan duen garrantzia murriztu bazen ere (batez ere IV. kapituluan), I, II, eta IV. kapituluetako zenbateko absolutuek gora egin zuten. Igoerarik handiena IV. kapituluko transferentzia arruntetan izan zen: 2008ko 38,4 milioi eurotik 42,3 milioi eurora igaro zen 2010ean.

Kapital-gastuak nabarmen igo ziren 2008 eta 2010 artean, bai inbertsio errealak (1,5 milioi eurotik 6 milioi eurora), bai kapital-transferentziak ere (12,8 milioi eurotik 14 milioi eurora).

**9. figura** Eusko Jaurlaritzak kulturan egindako gastu likidatua kapitulu ekonomikoaren arabera (%) 2008-2010



Eusko Jaurlaritzaren helmugako gastuaren 2008-2010 bilakaeran ikus daiteke gora egin zuela arteetan eta kultura-industrian egindako gastuak, 34,4 milioi eurotik 42,2 milioi eurora igo baitzen. Guztizko ondare-gastuak ez zuen aldaketa handirik izan (2008an zein 2010ean 30 milioi euro ingurukoa izan zen).

**10. figura** Eusko Jaurlaritzak kulturan egindako gastu likidatua kultura-esparruaren arabera

(%) 2008-2010




## Foru-aldundiak

Foru-aldundietan kultura gastuak behera egin zuen, oro har. Gastuaren bilakaera kapituluka alderatuz gero, jaitsi ez den bakarra I. kapituluari dagokiona da. Jaitsierarik nabarmenenak IV. kapituluko transferentzietan eta VI. kapituluko inbertsioetan gertatu ziren (7,0 eta 4,7 milioi eurokoak, hurrenez hurren).

Helmuga-gastuari dagokionez, kultura-esparru guztietan izan zen aurrekontu-murrizketa foru-aldundietan; beherakadarik handiena ondarean gertatu zen zenbateko absolutuetan, 70,4 milioi eurotik 62,3 milioi eurora.

**11. figura** Foru-aldundiek kulturan egindako gastu likidatua kultura-esparruaren arabera (%) 2008-2010




**12. figura** Foru-aldundiek kulturan egindako gastu likidatua kultura-esparruaren arabera (%) 2008-2010



## Udalak

2008ko datuekin alderatuta, 2008. eta 2010. urteen artean kapitulu ekonomikoaren araberako banaketa antzekoa den arren, badaude ezberdintasun batzuk VI. eta VII. kapituluetan. Inbertsio errealei dagokien VI. kapituluan, udalen kultura-aurrekontuak 18,7 miloi euro murriztu ziren (% 22,3tik % 16,4ra); kapital-transferentziak, berriz, 14,6 euro igo ziren (% 1,5etik % 6,5era).

**13. figura** Udalek kulturan egindako gastu likidatua kapitulu ekonomikoaren arabera (%) 2008-2010




Udalen kultura-aurrekontuak 2008tik 2010era izandako bilakaeran, nabarmentzekoa da arteetan eta kultura-industrietan baliatutako gastua areagotu izana (22,7 milioi euro gehiago izan ziren 2010. urtean, eta gastu horren garrantzia erlatiboa % 54,2tik % 63,1era igo zen).

**14. figura** Udalek kulturan egindako gastu likidatua kultura-esparruaren arabera
(%) 2008-2010




## Erakunde autonomoak, sozietate publikoak eta fundazioak

Erakunde autonomoen, sozietate publikoen eta fundazioen kulturako gastua kapitulu ekonomikoen arabera erkatzeak ikusarazten du aldaketarik handiena II. kapituluan izan zela: ondasun eta zerbitzuetako gastuak 13,2 milioi euro jaitsi ziren (% 49,1etik % 42,3ra). I. kapituluko kultura-gastua, berriz, 3,8 milioi igo zen 2008. ekitaldiarekin alderatuta.

Erakunde autonomo, sozietate publiko eta fundazioek egindako gastuaren kultura-esparruaren araberako banaketa ehunekotan alderatuz gero, ez zen aldaketa handirik izan. Zenbateko absolutuak, ordea, nabarmen aldatu ziren aztertutako aldian: ondareari dagokionez, entitate horiek egindako gastua 25 milioi eurokoa izan zen 2008an, eta 34,1 milioi eurokoa 2010ean. Arteetan eta kultura-industrietan egindako gastua, berriz, 2008ko 100,9 milioi eurotik 2010eko 82,5 milioi eurora iragan zen.

**15. figura** Erakunde autonomoek, sozietate publikoek eta fundazioek kulturan egindako gastu likidatua kapitulu ekonomikoaren arabera (%) 2008-2010




**16. figura** Erakunde autonomoek, sozietate publikoek eta fundazioek kulturan egindako gastu likidatua kultura-esparruaren arabera (%) 2008-2010



## 2.5. Hedabideetan egindako gastuaren bilakaera

2008tik 2010era, Eusko Jaurlaritzak hedabideetan egindako gastua 143,1 milioi eurotik 147,8 milioi eurora igo zen. Zenbateko horren zatirik handiena (% 97) transferentziei eta, batez ere, Euskal Irrati Telebistari egindako ekarpenei dagokie.

Gastu kontsolidatua 2008tik 2010era % 4,2 igo zen. Gastu hori kapituluen arabera aztertuz ikus daiteke 10 eurotik 6 ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntera bideratzen zirela (II. kapitulua) eta 10 eurotik 3 langileria-gastuetara (I. kapitulua).

**17. figura** Komunikabideetara bideratutako kultura-gastua, kapitulu ekonomikoaren eta entitate motaren arabera

(euroak) 2008-2010

| Kapitulu ekonomikoa | Urtea | Eusko Jaurlaritza | Foru-aldundiak | Udalak | Erakunde autonomoak eta sozietate publikoak | Kontsolidatutako gastua |
|---|---|---|---|---|---|---|
| I. kap. Langileria-gastuak | 2008 | 150.000 | 0 | 126.501 | 52.594.000 | 52.870.501 |
| | 2010 | 154.669 | 0 | 305.675 | 59.841.719 | 60.302.062 |
| II. kap. Ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak | 2008 | 0 | 0 | 868.244 | 116.711.454 | 117.579.698 |
| | 2010 | 15.066 | 0 | 517.606 | 116.973.461 | 117.506.133 |
| III. kap. Finantza-gastuak | 2008 | 0 | 0 | 0 | 330.702 | 330.702 |
| | 2010 | 0 | 0 | 0 | 68.461 | 68.461 |
| IV. kap. Transf. arruntak | 2008 | 129.400.206 | 0 | 1.012.918 | 2.340 | 1.015.258 |
| | 2010 | 138.717.777 | 0 | 942.520 | 0 | 987.520 |
| VI. kap. Inbertsio errealak | 2008 | 0 | 0 | 27.243 | 7.375.000 | 7.402.243 |
| | 2010 | 0 | 0 | 0 | 3.717.222 | 3.717.222 |
| VII. kap. Kapital-transf. | 2008 | 13.530.445 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| | 2010 | 4.776.054 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| VIII. kap. Finantza-aktiboak | 2008 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| | 2010 | 4.160.000 | 0 | 0 | 0 | 4.160.000 |
| IX. kap. Finantza-pasiboak | 2008 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| | 2010 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| GUZTIRA | 2008 | 143.080.651 | 0 | 2.034.906 | 177.013.496 | 179.198.402 |
| | 2010 | 147.823.566 | 0 | 1.765.801 | 180.600.863 | 186.741.398 |

**18. figura** Komunikabideetara bideratutako kultura-gastu kontsolidatua, kapitulu ekonomikoaren arabera (%) 2008-2010



# 3. KULTURA GASTUA ADMINISTRAZIO-MAILEN ARABERA

Atal honetan, azterketa hiru administrazio-mailen arabera egin da, hau da, Eusko Jaurlaritza, foru-aldundiak eta udalak. Maila bakoitzean administrazioaren zuzeneko gastuak sartzen dira, bai eta horren mendeko erakunde autonomoenak, edota administrazioaren partaidetza jasotzen duten fundazio, enpresa publiko edo beste entitateenak ere, baldin eta EAEko administrazio publikoen ekarpenak entitateon baliabideen % 50 gainditzen badu.

Partidetan zenbaketa bikoitzak egitea ekiditeko, gastuaren kontsolidazio-prozesua gauzatu da administrazio-maila bakoitzean; horri esker, Eusko Jaurlaritzak, foru-aldundiek zein udalek kulturan egindako gastuaren irudi zehatza lortzen da, administrazio-maila bakoitzean dagoen deszentralizazio-mailak eragin gabe.

## 3.1. Transferentzien fluxuak administrazio-mailen arabera

Kontsolidazio-prozesuaren lehenengo urratsa administrazio-maila bakoitzak bere mendeko erakunde autonomikoei, sozietate publikoei eta fundazioei egindako transferentziak identifikatzea da.

Mendeko entitate horiek askotarikoak dira: udaleko kultura-kudeaketan diharduten tokiko erakunde autonomoak, musika-irakaskuntzan dihardutenak, museoak, antzokiak, orkestrak, jaialdiak edota ondarea zaintzera dedikatutako sozietateak. Horrez gainera, administrazioen partaidetza-maila ere ezberdina izan daiteke: entitate batzuek administrazio bakarraren partaidetza izaten dute, hala nola, erakunde autonomoek; beste batzuek, berriz, profil mistoa dute: administrazio batek baino gehiagok partaidetza izanik eta kasuan kasu alda daitezkeen ehunekoetan. Oro har, EAEko kultura-erakunde handiek hainbat administrazioren ekarpenak jasotzen dituzte (administrazio autonomikokoak, aldundietakoak eta udaletakoak).

2010ean, euskal administrazioek horien mendeko entitateetara egindako transferentziak 93,5 milioi eurokoak izan ziren, guztira. Eusko Jaurlaritzak 11,7 milioi euro transferitu zituen

bere partaidetza jasotzen duten sozietate publiko eta fundazioetara; foru-aldundiek 16,5 milioi transferitu zizkieten beren mendeko entitateei edo beren partaidetza jasotzen dutenei; azkenik, udalek izan zuten transferentzia-fluxurik handiena, 65,2 milioi euro transferitu baitzituzten erakunde autonomo, sozietate publiko eta fundazioetara. Kontuan hartu behar da entitate mota horiek sarri aurkitzen direla udaleko kultura-kudeaketan, bai gertuko jarduera eta kulturaren dinamizazioaz arduratzen direlako, eta bai musika-eskolez arduratzen direlako.

**19. figura** Transferentzien fluxuak administrazio-mailen arabera [2010]




## 3.2. Kulturan egindako gastua kapitulu ekonomikoaren eta administrazio-mailen arabera

Kulturako gastuak kapitulu ekonomikoaren eta administrazio-mailen arabera izandako banaketak irismen handiagoko ikuspegia ematen du, Eusko Jaurlaritzako, foru-aldundietako eta udaletako aurrekontuen banan banako azterketa zorrotzak ematen duenak baino. Administrazio nagusiak eta horietara atxikitako entitateak aztertuz, eta aplikatutako konstsolidazio-prozesuaren laguntzaz, badago administrazioek egiten dituzten transferentzien azken helburua jakiterik, baita hiru administrazio-mailen gastuaren profilaz jabetzerik ere, horren izaera ekonomikoaren arabera.

2010ean, Eusko Jaurlaritzak 44,6 milioi euro bideratu zituen transferentzietara (IV. eta VII. kapituluak), hau da, kulturako gastuaren % 55,8. Eusko Jaurlaritzaren eginkizuna EAEko bestelako entitate publiko eta pribatuen finantzatzaile izatea da, horiek, ondoren, kultura gastua zuzenean exekutatu dezaten beren eskumen- eta kudeaketa-esparru desberdinetan. Egiten diren transferentzien zati bat beste entitate batzuetako langileria-gastuak eta ondasun eta zerbitzuetarako gastu arruntak estaltzera bideratzen da, azkenean. Horrela, 12,3 milioi euro inguru bideratu zituen langileria-gastuetara (I. kapitulua), eta 12,5 milioi euro ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntetara (II. kapitulua).

**20. figura** Kulturan egindako gastua, kapitulu ekonomikoaren eta administrazio-mailaren arabera

(euroak eta % -ak) 2010

| Kapitulu ekonomikoa | Eusko Jaurlaritza | | Foru-aldundiak | | Udalak | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | € | % | € | % | € | % |
| **Gastu arruntak** | **55.840.285** | **69,9** | **62.970.589** | **65,3** | **252.878.120** | **78,2** |
| I. kap. Langileria-gastuak | 12.323.046 | 15,4 | 25.082.832 | 26,0 | 95.943.830 | 29,7 |
| II. kap. Ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak | 12.505.497 | 15,7 | 21.525.525 | 22,3 | 120.815.240 | 37,4 |
| III. kap. Finantza-gastuak | 64.677 | 0,1 | 70.352 | 0,1 | 419.496 | 0,1 |
| IV. kap. ransferentzia arruntak | 30.947.065 | 38,7 | 16.291.880 | 16,9 | 35.699.554 | 11,0 |
| **Kapital-gastuak** | **20.210.732** | **25,3** | **30.828.552** | **32,0** | **70.020.888** | **21,7** |
| VI. kap. Inbertsio errealak | 6.526.338 | 8,2 | 18.179.055 | 18,9 | 55.509.492 | 17,2 |
| VII. kap. Kapital-transferentziak | 13.684.394 | 17,1 | 12.649.497 | 13,1 | 14.511.396 | 4,5 |
| **Finantza-aktibo eta -pasiboak** | **3.830.966** | **4,8** | **2.644.444** | **2,7** | **187.399** | **0,1** |
| VIII. kap. Finantza-aktiboak | 3.830.966 | 4,8 | 2.644.444 | 2,7 | 68.481 | 0,0 |
| IX. kap. Finantza-pasiboak | 0 | 0,0 | 0 | 0,0 | 118.918 | 0,1 |
| GUZTIRA | 79.881.983 | 100,0 | 96.443.585 | 100,0 | 323.086.407 | 100,0 |

Foru-aldundien eta horien mendeko sozietate publiko eta fundazioen kulturako gastu gehiena langileria-gastuak estaltzera (I. kapitulua, % 26), ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntera (II.

kapitulua, % 22,3) eta inbertsioak (VI. kapitulua, % 18,9) egitera bideratu zen. Transferentziek garrantzia urriagoa dute: 16,3 milioi euro bideratu zituzten transferentzietara arruntetara (IV. kapitulua), eta 12,6 milioi euro kapital-transferentzietara (VII. kapitulua).

Udalak kasuan, 2010ean kulturan egin zuten gastua ondasunetako eta zerbitzuetako gastu arruntak (II. kapitulua) estaltzera bideratu zen, nagusiki, 120,8 milioi euroko gastuarekin; langileria-gastuak (I. kapitulua) 95,9 milioi eurora iritsi ziren eta inbertsioak (VI. kapitulua), berriz, 55,5 milioi eurora. Kultura-ehunak jasotako diru-laguntzak, guztira, 35,7 milioi eurokoak izan ziren.

Udalen gastuaren izaera ekonomikoaren araberako banaketak ezberdintasunak azaleratzen ditu lurralde historikoei erreparatuta. Horrela, inbertsioengatiko kapital-gastuek garrantzi handiagoa dute, argiro, Arabako eta Gipuzkoako udaletan (% 23,2 eta % 24,2), Bizkaiko udaletan baino (% 10,1).

**21. figura** Udalen kulturako gastua izaera ekonomikoaren eta lurralde historikoaren arabera (%) 2010




Bizkaiko udaletan langileriak eta jarduerak sortzen dituzten egiturazko gastuak gailentzen dira (I. eta II. kapituluak), horiek kultura gastuaren % 73,3 hartzen baitute; Gipuzkoan eta Araban, berriz, gastu horiek garrantzia txikiagoa dute, hots, lurralde horietako udalen osoko gastuaren % 65,2 eta % 53,8, hurrenez hurren.

## 22. figura Udalen kulturako gastua kapitulu ekonomikoaren eta lurralde historikoaren arabera

(euroak eta % -ak) 2010

| Kapitulu ekonomikoa | Araba | | Bizkaia | | Gipuzkoa | | Udal guztiak | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | % | € | % | € | % | € | % |
| Gastu arruntak | 38.138.738 | 66,1 | 132.133.749 | 84,7 | 82.605.633 | 75,5 | 252.878.120 | 78,2 |
| I. kap. Langileria-gastuak | 12.287.154 | 21,3 | 52.466.120 | 33,6 | 31.190.556 | 28,5 | 95.943.830 | 29,7 |
| II. kap. Ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak | 18.727.761 | 32,5 | 61.875.908 | 39,7 | 40.211.571 | 36,7 | 120.815.240 | 37,4 |
| III. kap. Finantza-gastuak | 116 | 0,0 | 125.400 | 0,1 | 293.980 | 0,3 | 419.496 | 0,1 |
| IV. kap. Transferentzia arruntak | 7.123.707 | 12,3 | 17.666.321 | 11,3 | 10.909.526 | 10,0 | 35.699.554 | 11,0 |
| Kapital-gastuak | 19.551.326 | 33,9 | 23.645.731 | 15,2 | 26.823.831 | 24,5 | 70.020.888 | 21,7 |
| VI. kap. Inbertsio errealak | 13.354.552 | 23,2 | 15.685.448 | 10,1 | 26.469.492 | 24,2 | 55.509.492 | 17,2 |
| VII. kap. Kapital-transferentziak | 6.196.774 | 10,7 | 7.960.283 | 5,1 | 354.339 | 0,3 | 14.511.396 | 4,5 |
| Finantza-aktibo eta -pasiboak | 0 | 0,0 | 186.999 | 0,1 | 400 | 0,0 | 187.399 | 0,1 |
| VIII. kap. Finantza-aktiboak | 0 | 0,0 | 68.081 | 0,0 | 400 | 0,0 | 68.481 | 0,0 |
| IX. kap. Finantza-pasiboak | 0 | 0,0 | 118.918 | 0,1 | 0 | 0,0 | 118.918 | 0,1 |
| GUZTIRA | 57.690.063 | 100,0 | 155.966.479 | 100,0 | 109.429.865 | 100,0 | 323.086.407 | 100,0 |

Udalen aldagaiak azaleratzen du, orobat, hiriburuek EAEko kultura gastu osoan duten garrantzia; izan ere, 137,8 milioi eurorekin, lehen mailako aktiboak dira kulturako udal-gastu publikoan.

Gastuaren izaera ekonomikoari dagokionez aurki daitezkeen ezberdintasunei erreparatuta, hainbat ondorio atera daitezke: langileria-gastuak bereziki adierazgarriak dira udalerri handietan, hiriburuak kanpoan utzita (% 40 I. kapituluan, 20.000 biztanletik gorako udalerrietan). Ondasun eta zerbitzuetako gastua, berriz, guztizko gastuaren erditik gertu dago udalerri txikiagoetan (% 48,4 II. kapituluan 5.000 biztanletik beherako udalerrietan). Kultura-ehunerako transferentziak antzeko portzentajera iristen dira 5.000 biztanletik beherako udalerrietan eta hiriburuetan (%

13,8 eta % 12,8 IV. kapituluan, hurrenez hurren). Inbertsioek garrantzia azpimarragarria dute udalerri ertainetan (% 23,5 VI. kapituluan 5.000 eta 20.000 biztanle arteko udalerrietan).

**23. figura** Kulturan egindako udal-gastua kapitulu ekonomikoaren eta udalerriaren tamainaren arabera

(euroak eta % -ak) 2010

| Kapitulu ekonomikoa | < 5.000 biztanle | | 5.000-20.000 biztanle | | > 20.000 biztanle | | Hiriburuak | | Udalen guztiak | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | € | % | € | % | € | % | € | % | € | % |
| Gastu arruntak | 29.921.448 | 81,3 | 57.059.983 | 76,1 | 66.909.952 | 91,2 | 98.986.737 | 71,9 | 252.878.120 | 78,2 |
| I. kap. Langileria-gastuak | 7.016.800 | 19,1 | 18.991.028 | 25,3 | 29.358.582 | 40,0 | 40.577.420 | 29,5 | 95.943.830 | 29,7 |
| II. kap. Ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak | 17.823.450 | 48,4 | 30.399.445 | 40,5 | 31.894.015 | 43,5 | 40.698.330 | 29,5 | 120.815.240 | 37,4 |
| III. kap. Finantza-gastuak | 14.462 | 0,0 | 257.963 | 0,4 | 14.231 | 0,0 | 132.840 | 0,1 | 419.496 | 0,1 |
| IV. kap.: Transferentzia arruntak | 5.066.736 | 13,8 | 7.411.547 | 9,9 | 5.643.124 | 7,7 | 17.578.147 | 12,8 | 35.699.554 | 11,0 |
| Kapital-gastuak | 6.809.345 | 18,5 | 18.004.224 | 23,9 | 6.418.530 | 8,8 | 38.788.789 | 28,1 | 70.020.888 | 21,7 |
| VI. kap. Inbertsio errealak | 6.797.571 | 18,5 | 17.675.567 | 23,5 | 4.524.240 | 6,2 | 26.512.114 | 19,2 | 55.509.492 | 17,2 |
| VII. kap. Kapital-transferentziak | 11.774 | 0,0 | 328.657 | 0,4 | 1.894.290 | 2,6 | 12.276.675 | 8,9 | 14.511.396 | 4,5 |
| Finantza-aktibo eta -pasiboak | 102.557 | 0,2 | 27.133 | 0,0 | 24.709 | 0,0 | 33.000 | 0,0 | 187.399 | 0,1 |
| VIII. kap. Finantza-aktiboak | 10.372 | 0,0 | 400 | 0,0 | 24.709 | 0,0 | 33.000 | 0,0 | 68.481 | 0,0 |
| IX. kap. Finantza-pasiboak | 92.185 | 0,2 | 26.733 | 0,0 | 0 | 0,0 | 0 | 0,0 | 118.918 | 0,1 |
| GUZTIRA | 36.833.350 | 100,0 | 75.091.340 | 100,0 | 73.353.191 | 100,0 | 137.808.526 | 100,0 | 323.086.407 | 100,0 |

## 3.3. Kulturan egindako gastua kultura-esparruaren eta administrazio-mailen arabera

Gastuaren helmuga kultura-esparruaren eta administrazio-mailen arabera gurutzatuta aztertzeak agerian uzten du administrazio publikoen eskumen-dibertsitatea. Eta gainera, agerian uzten ditu horien politiken eta hainbat sektoreen beharrizanei erantzuteko sortutako egituren arteko aldeak.

2010ean, Eusko Jaurlaritzak 44,7 milioi euro bideratu zituen arteetara eta kultura-industrietara, hau da, kultura gastuaren % 56,0: musikak biltzen du gastu-bolumenik handiena (% 27,3), zinema eta ikus-entzunezkoen (% 12,6) eta kultura-ekintzaren (% 8,1) aurretik. Ondareak, berriz, 31,4 milioi euro jaso zituen (guztizko gastuaren % 39,3); esparru honen barruan, museotan egindako gastua nabarmentzen da (% 19,4).

Foru-aldundiek 67 milioi euro bideratu zituzten ondarearen arlora, hau da, baterako gastuaren bi heren baino gehiago (% 69,5). Arlo honetan, ondareari eta arkeologiari lotutako gastuen (% 30,7) eta museoei lotutakoenen (% 26,5) garrantzia nabarmen daiteke. Hain zuzen ere, foru-aldundiek ondare-arloan dituzten eskumenek azaltzen dute xede horretara bideratutako gastuaren bolumena. Horren ondorioz, ordea, arteekin eta kultura-industriekin lotutako gastua nabarmen txikiagoa izan zen: 26,1 milioi eurokoa (gastuaren % 27,1).

Udalak gailentzen dira arteetan eta kultura-industrietan inbertitutako gastuan: guztira 190,8 milioi euro bideratu zituzten (% 59,1). Nabarmentzekoak dira kultura-ekintzan (% 22,5) eta musikan (% 21,7) egindako gastuak ere. Kasu honetan, gertutasun-politikak eta udal musika-eskolen beharrizanak daude gastu horien atzean. Ondareari erreparatuta, aipatzekoa da guztizko 66,4 milioi euroko gastutik liburutegietara bideratutakoa (% 8,8). Bestalde, oso esanguratsua da jaien eta herri-kulturaren garrantzi erlatiboa, 37,5 milioi euro bideratu baitzituzten azpi-sistema horretara (gastuaren % 11,6). Zuzendaritza eta zerbitzu orokorrekin lotutako baliabideek udalek egindako gastuaren % 8,8 osatu zuten.

Arabako udalerriek 12,9 milioi euro gastatu zituzten musikan eta beste 12 milioi euro ondarean eta arkeologian (% 22,4 eta % 20,9 hurrenez hurren).

## 24. figura Kulturan egindako gastua kultura-esparruaren eta administrazio-mailen arabera

(euroak eta % -ak) 2010

| Kultura-esparrua | Eusko Jaurlaritza | | Foru-aldundiak | | Udalak | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | € | % | € | % | € | % |
| **Ondarea** | **31.413.317** | **39,3** | **67.019.267** | **69,5** | **66.437.063** | **20,5** |
| Ondarea eta arkeologia | 5.789.109 | 7,2 | 29.642.035 | 30,7 | 17.043.056 | 5,3 |
| Liburutegiak | 2.616.403 | 3,3 | 8.560.555 | 8,9 | 28.594.729 | 8,8 |
| Artxiboak | 7.516.286 | 9,4 | 3.293.467 | 3,4 | 3.629.061 | 1,1 |
| Museoak | 15.491.519 | 19,4 | 25.523.210 | 26,5 | 17.170.217 | 5,3 |
| **Arteak eta industriak** | **44.708.273** | **56,0** | **26.144.880** | **27,1** | **190.812.891** | **59,1** |
| Antzerkia eta dantza | 3.524.251 | 4,4 | 3.667.867 | 3,8 | 29.205.609 | 9,1 |
| Musika | 21.830.682 | 27,3 | 9.398.082 | 9,8 | 70.184.649 | 21,7 |
| Ikusizko arteak | 932.760 | 1,2 | 3.693.321 | 3,8 | 6.546.237 | 2,0 |
| Zinema eta ikus-entzunezkoak | 10.064.998 | 12,6 | 2.392.194 | 2,5 | 10.102.919 | 3,1 |
| Literatura eta edizioa | 1.787.327 | 2,2 | 200.407 | 0,2 | 1.527.904 | 0,5 |
| Kultura-ekintza | 6.426.585 | 8,1 | 6.675.409 | 6,9 | 72.603.621 | 22,5 |
| Bertsolaritza | 141.670 | 0,2 | 117.600 | 0,1 | 641.952 | 0,2 |
| **Jaiak eta herri-kultura** | **31.910** | **0,0** | **74.830** | **0,1** | **37.478.932** | **11,6** |
| **Zuzendaritza eta zerbitzu orokorrak** | **3.728.483** | **4,7** | **3.204.608** | **3,3** | **28.357.521** | **8,8** |
| **GUZTIRA** | **79.881.983** | **100,0** | **96.443.585** | **100,0** | **323.086.407** | **100,0** |

Bizkaian, ostera, udalen kultura gastua musikara bideratu zen batez ere, 36,2 milioi euro (% 23,2). Ondoren kultura-ekintza letorke, 33,8 milioi eurorekin (% 21,7).

Gipuzkoan, udalen kultura gastuaren protagonista nagusia kultura-ekintza izan zen, 29,7 milioi eurorekin (% 27,2), eta horren atzetik kokatu zen musika, gastu-bolumenari dagokionez, 21,1 milioi eurorekin (% 19,3).

**25. figura** Udalen kultura gastua kultura-esparruen eta lurralde historikoaren arabera (%) 2010




Udalerrien biztanleria kopuruaren araberako kultura gastuaren azterketan sakonduz gero, jokabide desberdinak hautematen dira. Horrela, udalerria zenbat eta handiagoa izan, orduan eta garrantzia urriagoa dute jaiek kulturako gastuen guztizkoan (% 24,2koa 5.000 biztanletik beherako udalerrietan eta % 8,1ekoa hiriburuetan). Kultura-ekintza, ordea, oro har da udal-gastuaren lehentasuna, baina batez ere neurri ertaineko udalerrietan (5.000-20.000 biztanle), non kulturako gastuaren % 30,2 biltzera iristen den.

Musikaren garrantziak gora egiten du udalerri handienetan (% 28,5 20.000 biztanle baino gehiagoko udalerrietan eta % 23,4 hiriburuetan). Liburutegiek, ordea, gastuaren % 16,2 hartzen dute udalerri txikienetan (5.000 biztanletik beherakoetan), baina % 5,8 soilik hiriburuetan. Gai horri dagokionez, aintzat hartzekoa da foru-liburutegiak hiriburuetan izatea. Hiriburuak antzerkira eta dantzara bideratutako ekarpenetan (% 14,2) gailentzen dira, bai eta museoetara bideratutakoetan ere (% 9,3).

Ia udal guztietan ematen diren oinarrizko zerbitzu batzuk izateak (jaiak eta liburutegiak) azaltzen ditu jokabide ezberdin horiek. Gainerako gastua hautazkoa denez gero, baliabide gutxiago dituzten udalerriek ezin dituzte eskaini eta, legez zein ohituraz nahitaezkoak direnek (liburutegiak eta jaiak, hurrenez hurren) garrantzi erlatibo handiagoa dute.

## 26. figura Udalen kultura gastua kultura-esparruaren eta lurralde historikoaren arabera

(euroak eta % -ak) 2010

| Kultura-esparrua | Araba/Álava | | Bizkaia | | Gipuzkoa | | Udalak | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | € | % | € | % | € | % | € | % |
| **Ondarea** | **19.878.375** | **34,4** | **24.617.685** | **15,7** | **21.941.003** | **20,1** | **66.437.063** | **20,5** |
| Ondarea eta arkeologia | 12.075.578 | 20,9 | 3.934.394 | 2,5 | 1.033.084 | 0,9 | **17.043.056** | **5,3** |
| Liburutegiak | 6.246.430 | 10,8 | 13.416.588 | 8,6 | 8.931.711 | 8,2 | **28.594.729** | **8,8** |
| Artxiboak | 1.000.854 | 1,7 | 1.458.573 | 0,9 | 1.169.634 | 1,1 | **3.629.061** | **1,1** |
| Museoak | 555.513 | 1,0 | 5.808.130 | 3,7 | 10.806.574 | 9,9 | **17.170.217** | **5,3** |
| **Arteak eta industriak** | **29.845.336** | **51,8** | **96.264.264** | **61,8** | **64.703.291** | **59,1** | **190.812.891** | **59,1** |
| Antzerkia eta dantza | 4.086.066 | 7,1 | 19.202.261 | 12,3 | 5.917.282 | 5,4 | **29.205.609** | **9,1** |
| Musika | 12.910.721 | 22,4 | 36.174.707 | 23,2 | 21.099.221 | 19,3 | **70.184.649** | **21,7** |
| Ikusizko arteak | 3.080.657 | 5,3 | 2.360.271 | 1,5 | 1.105.309 | 1,0 | **6.546.237** | **2,0** |
| Zinema eta ikus-entzunezkoak | 574.043 | 1,0 | 3.274.979 | 2,1 | 6.253.897 | 5,7 | **10.102.919** | **3,1** |
| Literatura eta edizioa | 33.390 | 0,1 | 1.034.054 | 0,7 | 460.460 | 0,4 | **1.527.904** | **0,5** |
| Kultura-ekintza | 9.119.975 | 15,8 | 33.769.325 | 21,7 | 29.714.321 | 27,2 | **72.603.621** | **22,5** |
| Bertsolaritza | 40.484 | 0,1 | 448.667 | 0,3 | 152.801 | 0,1 | **641.952** | **0,2** |
| **Jaiak eta herri-kultura** | **6.633.204** | **11,5** | **18.339.357** | **11,8** | **12.506.371** | **11,4** | **37.478.932** | **11,6** |
| **Zuzendaritza eta zerbitzu orokorrak** | **1.333.148** | **2,3** | **16.745.173** | **10,7** | **10.279.200** | **9,4** | **28.357.521** | **8,8** |
| GUZTIRA | 57.690.063 | 100,0 | 155.966.479 | 100,0 | 109.429.865 | 100,0 | 323.086.407 | 100,0 |

## 27. figura Kulturan egindako udal-gastua kultura-esparruaren eta udalerriaren tamainaren arabera

(euroak eta % -ak) 2010

| Kultura-esparrua | <5.000 biztanle | | 5.000-20.000 biztanle | | > 20.000 biztanle | | Hiriburuak | | Udal guztiak | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | € | % | € | % | € | % | € | % | € | % |
| **Ondarea** | **10.490.247** | **28,5** | **9.506.587** | **12,7** | **13.118.737** | **17,9** | **33.321.492** | **24,2** | **66.437.063** | **20,5** |
| Ondarea eta arkeologia | 2.543.078 | 6,9 | 684.561 | 0,9 | 3.309.496 | 4,5 | 10.505.921 | 7,6 | **17.043.056** | **5,3** |
| Liburutegiak | 5.967.592 | 16,2 | 6.959.615 | 9,3 | 7.651.072 | 10,5 | 8.016.450 | 5,8 | **28.594.729** | **8,8** |
| Artxiboak | 294.380 | 0,8 | 494.916 | 0,7 | 819.840 | 1,1 | 2.019.925 | 1,5 | **3.629.061** | **1,1** |
| Museoak | 1.685.197 | 4,6 | 1.367.495 | 1,8 | 1.338.329 | 1,8 | 12.779.196 | 9,3 | **17.170.217** | **5,3** |
| **Arteak eta industriak** | **13.993.657** | **38,0** | **44.153.733** | **58,8** | **45.098.706** | **61,5** | **87.566.795** | **63,5** | **190.812.891** | **59,1** |
| Antzerkia eta dantza | 520.276 | 1,4 | 3.491.001 | 4,6 | 5.622.888 | 7,7 | 19.571.444 | 14,2 | **29.205.609** | **9,1** |
| Musika | 3.915.603 | 10,6 | 13.070.354 | 17,4 | 20.916.970 | 28,5 | 32.281.722 | 23,4 | **70.184.649** | **21,7** |
| Ikusizko arteak | 61.149 | 0,2 | 860.643 | 1,1 | 1.401.236 | 1,9 | 4.223.209 | 3,1 | **6.546.237** | **2,0** |
| Zinema eta ikus-entzunezkoak | 387.898 | 1,1 | 3.722.407 | 5,0 | 2.367.991 | 3,2 | 3.624.623 | 2,6 | **10.102.919** | **3,1** |
| Literatura eta edizioa | 100.216 | 0,3 | 266.957 | 0,4 | 815.997 | 1,1 | 344.734 | 0,2 | **1.527.904** | **0,5** |
| Kultura-ekintza | 8.957.531 | 24,3 | 22.667.830 | 30,2 | 13.572.589 | 18,5 | 27.405.671 | 19,9 | **72.603.621** | **22,5** |
| Bertsolaritza | 50.984 | 0,1 | 74.541 | 0,1 | 401.035 | 0,6 | 115.392 | 0,1 | **641.952** | **0,2** |
| **Jaiak eta herri-kultura** | **8.920.786** | **24,2** | **11.059.645** | **14,7** | **6.308.651** | **8,6** | **11.189.850** | **8,1** | **37.478.932** | **11,6** |
| **Zuzendaritza eta zerbitzu orokorrak** | **3.428.660** | **9,3** | **10.371.375** | **13,8** | **8.827.097** | **12,0** | **5.730.389** | **4,2** | **28.357.521** | **8,8** |
| **GUZTIRA** | **36.833.350** | **100,0** | **75.091.340** | **100,0** | **73.353.191** | **100,0** | **137.808.526** | **100,0** | **323.086.407** | **100,0** |

# 4. ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN MULTZOAK KULTURAN EGINDAKO GASTUA

EAEko kultura gastu publikoa hiru administrazio-mailei atxikitako administrazioen arteko transferentzien beste garbiketa bat egin ondoren lortzen da. Hortaz, beste urrats bat ematen da 3. atalean aurkeztutako analisiari dagokionez. Azken emaitza gisa, euskal administrazio publikoek egindako gastu kontsolidatua ateratzen da, administrazio horien forma juridikoa edo kudeaketa-eredua aintzat hartu gabe.

Atal honetan prozesu horren emaitza aurkezten da, bi ikuspuntutatik: partidak entitate finantzatzaileetan mantenduz lortzen dena, hau da, jatorrian kontsolidatutako gastua deritzona, eta partidak entitate hartzaileetan mantentzetik lortzen dena, hau da, helmugan kontsolidatutako gastua. Beste era batera esanda, emaitza horiek EAEko administrazio publiko guztiek 2010ean egin zuten gastuaren bi aldeak dira. Interpretazio-gako osagarriak ematen dituzte bi begirada horiek: batetik, kulturako gastu publikoa kontsolidatzen duten iturrien profila, eta, bestetik, gastu horren azken emaitzaren ezaugarriak. Laburbilduz, kulturako aurrekontu publikoak nondik datozen, zertara bideratzen diren eta nola gastatzen diren.

## 4.1. Transferentzien fluxuak administrazio-mailen artean

Administrazio-mailen arteko transferentziak, gehien bat, udalez gaindiko administrazioetatik (Eusko Jaurlaritza eta foru-aldundiak) datoz udaletara eta horien mendeko entitateetara; eta, neurri apalagoan, Eusko Jaurlaritzatik foru-aldundien mendeko sozietate publiko eta fundazioetara. 2010ean, 20,3 milioi eurora iritsi ziren, guztira, administrazioen arteko barne-transferentziak.

Eusko Jaurlaritzak 15,5 milioi euro transferitu zituen beste administrazio-maila batzuetara. Foru-aldundien mendeko sozietate publiko eta fundazioek 0,7 milioi euro jaso zituzten, udalek 9,2 milioi euro, eta udalen erakunde autonomo, sozietate publiko eta fundazioek, berriz, 5,7 milioi euro.

Foru-aldundiek 4,8 milioi euro transferitu zizkieten udalei: 3,7 milioi euro zuzenean udalei, eta 1,1 milioi euro udal erakunde autonomoei, udal sozietate publikoei eta udal-fundazioei.

**28. figura** EAEko administrazioen arteko transferentziak [2010]




## 4.2. Jatorrian kontsolidatutako gastua

Jatorriko datuak finkatzeko unean, transferentziak entitate finantzatzailearekin lotuta jarraitzen du, eta horri esker jakin daiteke administrazio-maila bakoitzak EAEko gastu garbian izan duen garrantzia. Hala, bada, EAEko gastu kontsolidatua 2010ean 479,1 miloi eurokoa izan bazen, Eusko Jaurlaritzak gastuaren % 16,7 egin zuen; foru-aldundiek % 20,0; eta udalek % 63,3.

Logikoa denez, administrazio finantzatzaileen (Eusko Jaurlaritza eta foru-aldundiak) garrantzia erlatiboa zertxobait areagotu da EAEko kulturako gastu osoan, udalenarekin alderatuta, azken horiek udalez gaindiko entitateek egiten dizkieten transferentzien hartzaile baitira.

## 29. Figura Administrazio-maila bakoitzaren garrantzia erlatiboa EAEko kultura gastuari dagokionez

(euroak eta % -ak) 2010

| Administrazio-mailak | Kultura gastua | | Transferentzia bidezko diru-sarrerak | | EAEko kultura gastua | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | € | % | € | % | € | % |
| Eusko Jaurlaritza | 79.881.983 | 16,0 | 0 | 0,0 | 79.881.983 | 16,7 |
| Foru-aldundiak | 96.443.585 | 19,3 | 665.003 | 3,3 | 95.778.582 | 20,0 |
| Udalak | 323.086.407 | 64,7 | 19.646.232 | 96,7 | 303.440.175 | 63,3 |
| GUZTIRA EAEn | 499.411.975 | 100,0 | 20.311.235 | 100,0 | 479.100.740 | 100,0 |

Oharra: Kontsolidazio-prozesua egiteko unean entitate finantzatzaileen aurrekontu-partidak mantendu egin dira.

EAEko administrazio publikoen gastu kontsolidatuan kapituluen araberako banaketari erreparatuta, gastu arruntak guztizkoaren ia hiru laurden hartzen dituela ikus daiteke. Gainera, Eusko Jaurlaritzan zein foru-aldundietan, kapital-gastuak guztizkoaren % 25etik gorakok dira: Eusko Jaurlaritzan, kapital-transferentziek gastuen osotasunean duten garrantziaren ondorioz (13,7 milioi euro), eta foru-aldundietan inbertsioen (18 milioi euro) eta kapital-transferentzien (12,5 milioi euro) baturaren ondorioz. Udalek 52 milioi inbertsioetara bideratu zituzten arren, kapital-gastuen garrantzia erlatiboa % 21,8koa da.

## 30. figura EAEko administrazio publikoek kulturan egindako gastuaren banaketa, gastu motaren eta administrazio-mailaren arabera (%) 2010



Administrazio-maila bakoitzak EAEko gastu kontsolidatu osoari egin dion ekarpenari buruzko datuek agerian uzten dute gastu arrunten bi heren udalei dagozkiela (% 66,7). Kapital-gastuen erdia inguru ere tokiko administrazioei egozten zaie (% 56,6); baina finantza-aktiboei dagokienez, Eusko Jaurlaritzaren pisua nabarmena da guztizko zenbatekoetan (% 58,6).

**31. figura** EAEko administrazio publikoek kulturan egindako gastuaren banaketa, kapitulu ekonomikoaren eta administrazio-mailen arabera

(euroak eta % horizontala) 2010

| Kapitulu ekonomikoa | Eusko Jaurlaritza | | Foru-aldundiak | | Udalak | | GUZTIRA | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | € | % | € | % | € | % | € | % |
| **Gastu arruntak** | **55.840.285** | **15,7** | **62.626.122** | **17,6** | **237.098.159** | **66,7** | **355.564.566** | **100,0** |
| I. kap. Langileria-gastuak | 12.323.046 | 9,7 | 24.940.348 | 19,6 | 89.978.134 | 70,7 | **127.241.528** | 100,0 |
| II. kap. Ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak | 12.505.497 | 8,5 | 21.393.166 | 14,5 | 113.358.821 | 77,0 | **147.257.484** | 100,0 |
| III. kap. Finantza-gastuak | 64.677 | 12,8 | 70.310 | 14,0 | 368.928 | 73,2 | **503.915** | 100,0 |
| IV. kap. Transferentzia arruntak | 30.947.065 | 38,4 | 16.222.298 | 20,1 | 33.392.276 | 41,5 | **80.561.639** | 100,0 |
| **Kapital-gastuak** | **20.210.732** | **17,3** | **30.508.016** | **26,1** | **66.212.344** | **56,6** | **116.931.092** | **100,0** |
| VI. kap. Inbertsio errealak | 6.526.338 | 8,5 | 17.995.785 | 23,5 | 51.980.718 | 68,0 | **76.502.841** | 100,0 |
| VII. kap. Kapital-transferentziak | 13.684.394 | 33,8 | 12.512.231 | 31,0 | 14.231.626 | 35,2 | **40.428.251** | 100,0 |
| **Finantza-aktibo eta -pasiboak** | **3.830.966** | **58,0** | **2.644.444** | **40,0** | **129.672** | **2,0** | **6.605.082** | **100,0** |
| VIII. kap. Finantza-aktiboak | 3.830.966 | 58,6 | 2.644.444 | 40,4 | 65.563 | 1,0 | **6.540.973** | 100,0 |
| IX. kap. Finantza-pasiboak | 0 | 0,0 | 0 | 0,0 | 64.109 | 100,0 | **64.109** | 100,0 |
| GUZTIRA | 79.881.983 | 16,7 | 95.778.582 | 20,0 | 303.440.175 | 63,3 | 479.100.740 | 100,0 |

Oharra: Kontsolidazio-prozesua egiteko unean entitate finantzatzaileen aurrekontu-partidak mantendu dira.

Gastu arruntei erreparatuta, udalek ordaintzen dituzte langileria-gastuen (I. kapitulua) 10 eurotik 7 eta ondasun eta zerbitzuetako gastu arrunten (II. kapitulua) 10 eurotik 8. Transferentzia

arruntak (IV. kapitulua), berriz, antzeko ehunekoetan banatzen dira Eusko Jaurlaritzaren eta udalen artean: % 40na, gutxi gorabehera.

Esan bezala, udalen inbertsioen bolumenak (VI. kapitulua) baldintzatzen ditu kapital-gastuak. Kapital-transferentziek (VII. kapitulua), ostera, oreka handiagoa agertzen dute administrazio-mailen artean.

## 4.3. Helmugan kontsolidatutako gastua

EAE osoan kulturan egindako gastu kontsolidatuaren emaitzak aurkeztu ditugu atal honetan, betiere gastu hori egin duen entitatean mantenduz, eta hortaz, transferentziak eta dirulaguntzak jatorritik kenduz. Era horretan egindako kontsolidazio-prozesuak kultura gastuaren azken erabilera erakusten du, bai eta horren banaketa ekonomikoari buruzko xehetasun-maila handiagoa ere.

### Gastu kontsolidatua kultura-esparruaren arabera

2010ean kulturan egindako gastu publikoaren erdia inguru (247,2 milioi euro) arteetara eta kultura industrietara bideratu zen; bigarren tokian kokatu zen ondarean egindakoa, gastuaren % 33,1ekin (159 milioi euro). Jaiak eta herri-kultura finantzatzeko eta zuzendaritza eta zerbitzu orokorretara zuzendutako gastuak nabarmen txikiagoak izan ziren, guztizkoaren % 7,9 eta % 7,4koak, hurrenez hurren (37,6 milioi euro jaiak eta herri-kultura finantzatzeko eta 35,3 milioi zuzendaritza eta zerbitzu orokorretarako).

**32. figura** EAEko administrazio publikoek kulturan egindako gastua, kultura-esparruaren arabera (%) 2010



Analisiak gastu-maila ezberdinak erakusten ditu: lehenengo mailan daude kultura gastuen % 17 eta % 20 hartzen duten sektoreak, hots, musika eta kultura-ekintzak. Zehazki, musikak 92,6 milioi euro jaso zituen, EAEn kulturan egindako gastuaren % 19,4. Kultura-ekintzako gastua, berriz, 82,6 milioi eurokoa izan zen; kontzeptu horren barruan biltzen dira honako hauen bitartez sustatutako programak: ekipamendu komunitarioak eta soziokulturalak, balio anitzeko kultura-ekipamenduak eta –zerbitzuak, amateurismoa eta kultura-partaidetza.

Bigarren mailan daude museoak, 57,6 milioi eurorekin (% 12), eta ondarea eta arkeologia (% 10,2). Kulturako gastu osoaren % 7 eta % 8 inguru jaso zuten honako esparru hauek; liburutegiak (% 8), jaiak eta herri-kultura (% 7,9), zuzendaritza eta zerbitzu orokorretako zeharkako gastuak (% 7,4) eta antzerkia eta dantza (% 7,2).

Hauek dira, azkenik, ekarpen txikienak jaso zituzten sektoreak: zinema eta ikus-entzunezkoak (% 4,6), artxiboak (% 2,9), ikusizko arteak (% 2,3), literatura eta edizioa (% 0,7) eta bertsolaritza (% 0,2).

**33. figura** EAEko administrazio publikoek kulturan egindako gastua, kultura-esparruaren arabera (euroak eta %) 2010




| € | |
|---|---|
| Musika: | 92.634.576 |
| Kultura-ekintza: | 82.555.199 |
| Museoak: | 57.614.348 |
| Ondarea eta arkeologia: | 49.025.126 |
| Liburutegiak: | 38.340.318 |
| Jaiak eta herri-kultura: | 37.572.829 |
| Zuzend. eta zerbitzu orokorrak: | 35.290.612 |
| Antzerkia eta dantza: | 34.369.643 |
| Zinema eta ikus-entzunezkoak: | 22.116.581 |
| Artxiboak: | 14.014.615 |
| Ikusizko artea: | 11.150.034 |
| Literatura eta edizioa: | 3.515.636 |
| Bertsolaritza: | 901.223 |
| **Guztira:** | **479.100.740** |

Oharra: kontsolidazio-prozesuaren bitartez, transferentziak eta diru-laguntzak jatorritik kentzeko jarraibidea hartu da, horiek gauzatu diren hurbileneko mailan jasoz.

Biztanle bakoitzeko kulturan egindako gastua oinarritzat hartuta, modu grafikoan ikusten dira ezberdintasunak pertsona bakoitzean inbertitutako 220,9 euroak sektoreen arabera banatzean: musikak eta kultura-ekintzak 40 euro inguru jaso ditu biztanleko, gainerakoek, berriz, nabarmen gutxiago, hala nola, artxiboek (6,5 euro), ikusizko arteek (5,1 euro), literaturak eta edizioak (1,6 euro), eta bertsolaritzak (0,4 euro).

**34. figura** Kulturan biztanle bakoitzeko egindako gastuaren ratioa, kultura-esparruaren arabera

(€/biztanle bakoitzeko) 2010




## Gastu kontsolidatuaren izaera ekonomikoa

Helmugan kontsolidatutako kultura gastu osoaren izaera ekonomikoari erreparatzen badiogu, horren hiru laurden (% 74,6) gastu arruntetara bideratzen dela ikusiko dugu. Horien barruan, bi esparru gailentzen dira: II. kapitulua, ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntena, eta I. kapitulua, langileria-gastuena (% 32,3 eta % 27,8 hurrenez hurren) Kapital-gastuek, berriz, EAEn egindako kultura gastuaren laurden bat bereganatu dute (% 24), eta funts horiek VI. kapituluko inbertsioetara bideratu dira, batik bat (% 16,8).

## 35. figura EAEko kultura gastu kontsolidatua, kultura-esparruaren eta kapitulu ekonomikoaren arabera

(% horizontala) 2010

| Kultura-esparrua | Gastu arruntak % | | | | Kapital-gastuak % | | Finantza-aktibo eta -pasiboak % | | GUZTIRA % |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | I. kap. Langileria-gastuaz | Cap. II:Ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak | III. kap. Finantza-gastuak | IV. kap. Transferentzia arruntak | VI. kap. Inbertsio errealak | VII. kap. Kapital-transferentziak | VIII. kap. Finantza-aktiboak | IX. kap. Finantza-pasiboak | |
| Ondarea eta arkeologia | 10,9 | 10,9 | 0,0 | 13,6 | 32,3 | 32,3 | 0,0 | 0,0 | 100,0 |
| Liburutegiak | 50,5 | 27,3 | 0,0 | 0,2 | 21,8 | 0,2 | 0,0 | 0,0 | 100,0 |
| Artxiboak | 28,4 | 12,0 | 0,0 | 6,2 | 53,3 | 0,1 | 0,0 | 0,0 | 100,0 |
| Museoak | 18,2 | 25,1 | 0,2 | 18,8 | 17,0 | 11,5 | 9,2 | 0,0 | 100,0 |
| Antzerkia eta dantza | 20,8 | 47,6 | 0,2 | 12,9 | 8,4 | 10,1 | 0,0 | 0,0 | 100,0 |
| Musika | 52,6 | 18,2 | 0,0 | 16,0 | 9,9 | 3,2 | 0,1 | 0,0 | 100,0 |
| Ikusizko arteak | 18,2 | 53,9 | 0,0 | 20,9 | 5,2 | 1,8 | 0,0 | 0,0 | 100,0 |
| Zinema eta ikus-entzunezkoak | 10,8 | 42,8 | 0,5 | 16,0 | 12,9 | 11,7 | 5,3 | 0,0 | 100,0 |
| Literatura eta edizioa | 12,6 | 33,4 | 0,0 | 50,1 | 2,3 | 1,6 | 0,0 | 0,0 | 100,0 |
| Kultura-ekintza | 11,7 | 43,6 | 0,0 | 18,0 | 23,9 | 2,7 | 0,0 | 0,1 | 100,0 |
| Bertsolaritza | 9,5 | 42,1 | 0,0 | 37,3 | 0,0 | 11,1 | 0,0 | 0,0 | 100,0 |
| Jaiak eta herri-kultura | 5,7 | 69,9 | 0,0 | 23,0 | 1,2 | 0,2 | 0,0 | 0,0 | 100,0 |
| Zuzendaritza eta zerbitzu orokorrak | 61,2 | 29,4 | 0,8 | 0,3 | 8,3 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 100,0 |
| GUZTIRA | 27,8 | 32,3 | 0,1 | 14,4 | 16,8 | 7,2 | 1,4 | 0,0 | 100,0 |

Oharra: kontsolidazio-prozesuaren bitartez, transferentziak eta diru-laguntzak jatorrian kentzeko jarraibidea hartu da, horiek gauzatu diren hurbileneko mailan jasoz.

EAEko kultura gastua kapitulu ekonomikoaren eta kultura-esparruaren aldagaiak gurutzatua aztertuz gero, ondorio hauek atera daitezke:

- II. kapitulua da garrantzitsuena aztertutako 13 kultura-esparruetako 7tan, zehazki, jaietan eta herri-kulturan (esparru horretan, guztizko gastu finkatuaren % 69,9ra iritsi zen), ikusizko arteetan (% 53,9), antzerkian eta dantzan (% 47,6), kultura-ekintzan (% 43,6),

zineman eta ikus-entzunezkoetan (% 42,8), bertsolaritzan (% 42,1) eta museoetan (% 25,1). Gastu-bolumenaren arabera, zerrendan lehena kultura-ekintza da, 36 milioi eurorekin; atzean datoz jaiak (26,3 milioi) eta museoek, antzerkiak eta dantzak, eta musikak osatuta multzoa, horiek guztiek ondasun eta zerbitzuetarako gastu arruntean 14 eta 17 milioi euro bitartean jaso baitituzte.

- Langile gastuei buruzko I. kapitulua da garrantzitsuena aztertutako esparruetatik hirutan, hau da, ematen den zerbitzua batez ere beren kargurako langileei zuzenean lotutako esparruetan, esate baterako: musikan (% 52,6), musika-eskolen eta orkestren eraginez; zuzendaritza eta zerbitzu orokorren zeharkako esparruarekin lotutako kudeaketan (% 61,2); eta liburutegietan (esparru horretan, gastu kontsolidatuaren % 50,5era iritsi zen). Zenbateko absolutuetan musika oso nabarmen gailentzen da: 48,7 milioi euro bideratu ziren langile-gastuetara.
- Transferentzia arrunten kapituluak (IV. kapituluan) du garrantzi handiena, ordea, literaturan eta edizioan (% 50,1), eta esparru horretan oso txikia da administrazio publikoen zuzeneko esku-hartzea. Datu absolutuen irakurketak agerian uzten du, orobat, transferentziek kultura-ekintzan edo musikan duten garrantzia, 14,8 miloi euroko gastua izan baitzen bietan.
- Inbertsio errealek, azkenik, garrantzia dute kultura-esparru batzuetan, besteak beste, artxiboei (% 53,3) eta ondare eta arkeologiari (% 32,3) dagozkienetan. Beste behin, zenbateko absolutuetan kultura-ekintzak sortzen dituen inbertsioak dira nagusi, 19,8 milioi eurokoak, ondarera bideratutako 15,8 milioien aurretik..

# 5. KULTURA-ARLOKO ENPLEGU PUBLIKOA

Atal honetan aztertzen da kultura-arloko enplegua, administrazio publikoaren barrukoa, betiere. Bi motatako enpleguak bereizi dira: I. kapituluaren bidez finantzatutako entitateetako enplegua, batetik, eta beste kapitulu batzuen bidez finantzatzen den eta entitatearen funtzionamendurako azpikontratatzen den enplegua, bestetik (azken horri azpikontratatutako enplegua deritzo).

EAEko administrazio publikoan 3.272 lanpostu daude kultura arloan: horietatik 2.725 administrazio publikoetara atxikitako enpleguari dagozkio, eta 547 azpikontratatuak dira.

**36. figura** Kultura-arloko enplegu publikoa (urte osoko lanpostuak) [2010]




Administrazioko enplegu propio gehienak erakunde autonomoek eta sozietate publikoek sortzen dituzte (1.238), bai eta udalek ere (1.085); administrazioko guztizko enplegu propioaren % 45,4 eta % 39,8 dute, hurrenez hurren. Enplegu horien barruan nagusi den lanbide-eginkizunak kultura kudeaketarekin eta jarduerarekin lotutako lanpostuei dagozkie,

2.588 enplegaturekin (% 95), eta askoz maila apalagoan laguntzako eta zeharkako lanpostuei, 137 langilerekin (% 5).

**37. figura** Kultura-arloko enplegu propioa (I. kapituluari dagokiona) entitate motaren eta lanbide-eginkizunaren arabera

(urte osoko lanpostuak) 2010

| Entitate mota | Kultura-kudeaketarekin eta –jarduerarekin lotutako langileria | Laguntza-langileak eta zeharkakoak | Guztira |
|---|---|---|---|
| Eusko Jaurlaritza | 71 | 0 | **71** |
| Foru-aldundiak | 331 | 0 | **331** |
| Udalak | 973 | 112 | **1.085** |
| Erakunde autonomoak, sozietate publikoak eta fundazioak | 1.213 | 25 | **1.238** |
| Guztira EAEn | 2.588 | 137 | 2.725 |

Kulturako langile azpikontratatuei dagokienez, udaletan ematen dira nagusiki (252, % 46,1), baita erakunde autonomo eta sozietate publikoetan ere (204, % 37,3). Aipatzekoa da, orobat, azpikontratatutako langileak laguntzakoak direla, batik bat (332 lanpostu, guztizkoaren % 60,7).

**38. figura** Kultura-arloko enplegu azpikontratatua entitate motaren eta lanbide-eginkizunaren arabera

(urte osokolanpostuak) 2010

| Erakunde-mota | Kultura-kudeaketarekin eta –jarduerarekin lotutako langileria | Laguntza-langileak | Guztira |
|---|---|---|---|
| Eusko Jaurlaritza | 8 | 0 | **8** |
| Foru-aldundiak | 56 | 27 | **83** |
| Udalak | 103 | 149 | **252** |
| Erakunde autonomoak, sozietate publikoak eta fundazioak | 49 | 155 | **204** |
| **Guztira EAEn** | **216** | **332** | **547** |

EAEko administrazio publikoetan kultura-arloko langile-kopuruak gora egin zuen 2008 eta 2010 artean, urte osoko 140 lanpostu urtean, hain zuzen ere; % 5,4ko igoera. Zenbaketa horretan I. kapituluaren bidez finantzatutako enpleguak baino ez dira aintzat hartzen.

Kopuru absolutuetan, igoera handiena erakunde autonomoen, sozietate publikoen eta fundazioen multzoan gertatu zen, urte osoko 74 langilerekin (% 6,4); horren atzetik, foru-aldundiek sortu zuten lanpostu gehien, 56, zehazki (% 20,4). Eusko Jaurlaritzan eta udaletan igoera apalagoak izan ziren, 5 lanpostukoak (% 7,6 eta % 0,5, hurrenez hurren).

**39. figura** Kultura-arloko enplegu propioa (I. kapituluari dagokiona) entitate motaren arabera

(urte osoko lanpostuak) 2008-2010



### 2008-2010eko bilakaera

EAEko administrazioek kulturan egindako gastu likidatua % 3,4ko jaitsiera izan zuen 2008 eta 2010 artean, 612,8 miloi eurotik 592,3 milioi eurora igaro baitzen. Eusko Jaurlaritzak izan ezik, gainerako administrazioek beren kultura-aurrekontuak murriztu egin zituzten. Horrela, foru-aldundien aurrekontua % 14,6 jaitsi zen, erakunde autonomo, sozietate publiko eta fundazioena % 6,2, eta udalena % 2,1. Joera orokorraren aurka, Eusko Jaurlaritzak % 14,8 areagotu zuen kulturako gastua (66,2 milioi eurotik 76 milioi eurora).

2008 eta 2010 urteen arteko kulturarekiko ahalegin ekonomikoak edo, bestela esanda, administrazio publikoen aurrekontu osoekiko garrantzia erlatiboak adierazten du udal txikienek pairatu zutela, bereziki, aipatutako jaitsiera hori. Izan ere, kulturara bideratutako ahalegin ekonomikoa urritu egin zen foru-aldundietan (% 3,6tik % 2,9ra) eta udaletan (% 9,3tik % 8,7ra), baina areagotu Eusko Jaurlaritzan (% 0,6tik % 0,7ra). Udalak dira herritarrengandik gertuen dauden administrazioak eta kultura-zerbitzuen emaile nagusiak, hori dela eta, udalek egiten dute ahalegin ekonomikorik handiena: hiriburuetan 2008ko neurriari eutsi zitzaion (% 9,7), baina udalerri txikienek nabarmen jaitsi zuten 2008an egin zuten inbertsioa (% 10,2tik % 8ra).

EAEko administrazioetan kultura-arloan ari diren langile-kopuruak gora egin zuen 2008 eta 2010 artean, urte osoko 140 lanpostutan, 2.725 enplegura iritsi arte; % 5,4ko igoera, alegia. Igoera handiena erakunde autonomoen, sozietate publikoen eta fundazioen multzoan gertatu zen, 74 langile gehiagorekin (% 6,4); horren atzetik, foru-aldundiek sortu zituzten lanpostu gehien, 56, zehazki (% 20,4). Eusko Jaurlaritzak eta udalek bosna lanpostu erantsi zizkioten bere langileriari, % 7,6ko eta % 0,5eko igoerarekin.

### Kultura gastua zenbateko handietan, 2010

EAEko administrazio publiko guztien kultura gastu kontsolidatua, 2010ean, 479.100.740 eurokoa izan zen, hau da, biztanle bakoitzeko 220,9 eurokoa.

Euskal Autonomia Erkidegoko kultura-politikaren eredu deszentralizatuaren ondorioz, tokiko erakundeek egiten diote aurre kulturako gastu publikoaren zatirik nagusienari. Datuak

adierazkorrak dira: 100 eurotik 63 udalei dagozkie, 20 foru-aldundiei eta 17 Eusko Jaurlaritzari.

Horrez gainera, Kultura Ministerioak 15,8 milioi euroko ekarpena egin zien EAEko erakunde publiko eta pribatuei, hau da, 2008koa baino % 51,9 urriagoa.

## Beste herrialde batzuekiko alderaketa

EAEko biztanleko gastua (220,9 euro/biztanleko) beste herrialde batzuetako mailatik gertu dago, hala nola, Suediako[1] (gastu-mailatik (227 euro/biztanleko), bai eta beste herrialde batzuetako gastu-mailaren gainetik ere: Kanada[2] (205,8 euro/biztanleko) eta Herbehereak[3] (200,6 euro/biztanleko) Ordea, beste herrialde batzuetako 2008-2010 bilakaerak gorako joera erakusten du, % 1,5 eta % 21,7 artekoa (Frantzian % 1,5 hazi zen, Suedian % 1,6, Herbehereetan % 4,2, Alemanian % 5,6, Finlandian % 8,2 eta Kanadan % 21,7).

Herrialde horietako goranzko joeraren aurka, biztanleko gastua % 6,2 murriztu zen EAEn (208an, biztanleko 235,6 euro izatetik, 220,9 euro izatera 2010ean).

## Kultura gastuaren helmuga: jarduera-arloak

Sektore bakoitzaren dinamikek helburu eta interes ezberdinei erantzute diete: ezin dira alderatu ondarearekin lotutako kultura-ondasun eta –zerbitzuak kultura industrien funtzionamenduarekin edo sortzaileen beharrizanekin. Hala, bada, gastu publikoa sektoreka aztertzeak informazio objektiboa ematen du administrazioak horietako bakoitzari egindako ekarpenari buruz.

EAEko erakunde publikoentzat, musika eta kultura-ekintza dira lehentasunezko jarduera-esparruak; lehenengoak 100 eurotik 19 erakartzen ditu, eta bigarrenak 100 eurotik 17. Musikan, berriz, administrazioko hiru mailak elkartzen dira, elkarren osagarriak diren zerbitzu eta jardueren bidez, besteak beste, orkestrak, udal musika-eskolak eta musika-eskaintzaren sustapena. Kultura-ekintzari erreparatuta, udalek sustatzen dituzten gertutasun-politiketan duten garrantziaz gainera, zeharkako beste jarduera batzuk ere sartu dira, beste administrazio-maila batzuek sustatzen dituztenak, hain zuzen ere.

---

1 Iturria: *Eurostat; General government expenditure by function (COFOG).* http://epp.eurostat.ec.europa.eu/portal/page/portal/government_finance_statistics/data/database

2 *Contracts Canada: Service bulletin. Government Expenditures on Culture: Data Tables.* http://www.statcan.gc.ca/pub/87f0001x/87f0001x2011001-eng.pdf

3 Iturria: *Eurostat; General government expenditure by function (COFOG).* http://epp.eurostat.ec.europa.eu/portal/page/portal/government_finance_statistics/data/database

Ondarearen arloa ere lehentasunezkoa da administrazio publikoentzat: museoekin lotutakoak 100 eurotik 12 jasotzen ditu eta ondarearen zaintzarekin lotutakoak 10. Esparru horretan bereziki nabarmentzen dira foru-aldundiak, baina baita, museoei dagokionez, udalak eta Eusko Jaurlaritza ere.

Beste lehentasun-maila bat dute liburutegiek, jaiek eta herri-kulturak, zuzendaritza eta zerbitzu orokorretako zeharkako gastuek, eta antzerkiak eta dantzak: horiek guztiak gastuaren 100 eurotik 7 inguru jasotzen dituzte.

Hauek dira, azkenik, EAEn ekarpen txikienak jasotzen dituzten sektoreak: zinema eta ikus-entzunezkoak, artxiboak, ikusizko arteak, literatura eta edizioa, eta bertsolaritza.

## Kulturan egindako gastuaren izaera ekonomikoa

EAEko administrazio publikoek egindako gastuaren banaketak erakusten du gastu arrunta kapital-gastuaren gainetik dagoela: guztizkoaren ia hiru laurden hartzen ditu (% 74,2). Eta agerian uzten ditu, orobat, banaketa horretan administrazio-maila bakoitzean dauden ezberdintasunak.

Eusko Jaurlaritzan gastu arruntaren eta kapital-gastuaren bolumena transferentzien pisuaren ondorio da (guztizkoaren % 38,2 IV. kapituluan eta % 17,1 VII. kapituluan). Foru-aldundietan, berriz, langileria-gastuak eta ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak nabarmentzen dira (% 26 I. kapituluan eta % 22,3 II. kapituluan). Udalek hurrenkera hori irauli eta ondasun eta zerbitzuetan inbertitzen dute beren gastuaren zatirik nagusiena, langileria-gastuen aurretik (% 37,4 II. kapituluan eta % 29,7 I. kapituluan).

Finantza-aktibo eta –pasiboekin lotutako kapituluek garrantzia urriagoa dute: VIII. kapituluaren (finantza-aktiboak) pisua, ehunekotan, % 4,8koa da Eusko Jaurlaritzan eta % 2,8koa foru-aldundietan.

## Sektore publikoaren perimetroa

*EAEko finantzaketa eta gastu publikoa kulturan estatistika*ren irismena, oinarrian, sektore publikoa logika barneratzaile batetik ulertzetik abiatzen da. Antzeko beste azterlan batzuk ez bezala, sektore publikoaren perimetroa ez da mugatzen administrazio bakar baten mendeko erakunde autonomo, sozietate publiko eta fundazioetara, hiru administrazio-mailek partaidetza duten guztietara baizik. Horren ondorioz, kulturaren sektore publikotzat jotzen denaren irudi zabala lortzen da.

Hala eta guztiz ere, planteamendu barneratzaile hori krisi-egoera baten barruan gertatu da, hau da, baliabide publikoak murrizten ari diren garai batean. Testuinguru horretan, ekarpen publikoak mozteko joerak presentzia pribatua areagotzea dakar, hain zuzen ere, kultura-instituziorik garrantzitsuenetako batzuetan. Aurrez esan bezala, azterlan honetan ez dira gastu publikoaren baitan sartu baliabideen % 50 baino gehiago EAEko administrazio publikoetatik jaso ez duten entitateak. Ekonomia-krisiak bi aldiz kaltetu du gastu publikoa, horrenbestez: kultura-aurrekontuak murriztu ditu, eta sektore publikoaren perimetroa txikiagotu egin du. Gainera, badirudi dinamika hori etorkizunean areagotu egingo dela.

## I. ERANSKINA 2010eko azterlanean parte hartu duten erakunde autonomoak, sozietate publikoak eta fundazioak, lurralde historikoen arabera

### Araba/Álava

- Añanako Gatz Harana Fundazioa
- Jose Uruñuela Udal Dantza Kontserbatorioa
- Luis Aramburu Udal Musika Eskola
- Arabako ARTIUM Fundazioa
- Santa Maria Katedrala Fundazioa
- Arabarri, Sociedad Anónima de Gestión del Patrimonio Cultural
- Urkabustaiz Musika Eskola

### Bizkaia

- Ametx Zornotzako Kultura eta Euskara Zerbitzurako Herri Erakundea
- Arratiako Musika Eskola
- Astarloa Kulturgintza
- Astiunerako Udal Erakundea
- Barakaldo Antzokia S.A.
- Bartolome Ertzilla Musika Eskola eta Kontserbatorioa
- Basauriko Udal Kultur Etxea
- Arriaga Antzokia
- Galdakaoko Musika Eskola
- Andres Isasi Musika Eskola (Getxo)
- Euskal Arkeologia, Etnografia eta Kondaira Museoa. Bilbao
- Euskal Irrati Telebista
- Euskalduna Jauregia
- Juan Crisostomo de Arriaga Bilbao Orkestra Sinfonikoa Fundazioa

- Bilboko Arte Eder Museoa Fundazioa
- FMGB Guggenheim Bilbao Museoa
- Soinu Atadia Udal Fundazioa
- Gernika-Lumoko Kultur Etxea
- Gernikako Bakearen Museoa Fundazioa
- Gorlizko Kultur Etxea
- Lekeitioko Udal Kultur Erakundea
- Bilboko Artelan Berreginen Museoa
- O.A.L. Bilbaomusika
- Getxoko Kultura Aretoa
- Serantes Kultur Aretoa
- Rekalde Aretoa

## Gipuzkoa

- Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroa (Tabakalera)
- Deba Musikal Patronatoa
- Debako Udal Liburutegiko Patronatua
- Donostia Kultura
- Donostiako Musika eta Dantza Eskola
- Donostiako Musika Hamabostaldia
- Ekain Fundazioa
- «Errenteria Musical» Udal Musika Patronatua
- Donostiako Nazioarteko Zinemaldia S.A.
- Cristobal Balenciaga Fundazioa
- Kursaal Fundazioa
- Kulturnieta S.A.
- Herri Antzokia (Ordizia)
- Euskadi Orkestra Sinfonikoa S.A.
- Juan Bautista Guisasola Musika Estola (Eibar)
- Zarauzko Turismo Bulegoa
- Zumaiako Udal Musika Patronatua

# II. ERANSKINA 2010eko azterlanean parte hartu duten udalak, biztanleriaren arabera

## 5.000 biztanletik beherako udalerrietako udalak

| Araba/Álava | Bizkaia | Gipuzkoa |
|---|---|---|
| Artziniega | Alonsotegi | Aduna |
| Armiñon | Amoroto | Alkiza |
| Arratzu | Arratzu | Altzo |
| Asparrena | Arrieta | Asteasu |
| Baños de Ebro/Mañueta | Artea | Astigarraga |
| Berantevilla | Atxondo | Ataun |
| Bernedo | Bakio | Berrobi |
| Elburgo/Burgelu | Barrika | Elduain |
| Elciego | Ea | Elgeta |
| Elvillar/Bilar | Ereño | Errezil |
| Iruña Oka/Iruña de Oca | Errigoiti | Eskoriatza |
| Lagrán | Fruiz | Gabiria |
| Laguardia | Galdames | Getaria |
| Leza | Gamiz-Fika | Hernialde |
| Navaridas | Gatika | Idiazabal |
| Peñacerrada-Urizaharra | Gizaburuaga | Ikaztegieta |
| Ribera baja/Erribera beitia | Gordexola | Irura |
| Salvatierra/Agurain | Ibarrangelu | Itsasondo |
| Urkabustaiz | Iurreta | Legorreta |
| Zambrana | Karrantza Harana/Valle de Carranza | Leintz-Gatzaga |
| Zuia | Laukiz | Olaberria |
| | Loiu | Orendain |
| | Mañaria | Ormaiztegi |
| | Markina-Xemein | Zestoa |
| | Maruri-Jatabe | |
| | Mendata | |
| | Mendexa | |
| | Muxika | |
| | Sondika | |
| | Sukarrieta | |
| | Ubide | |
| | Ugao | |
| | Urduña/Orduña | |
| | Zaldibar | |
| | Zamudio | |
| | Zaratamo | |
| | Zierbena | |

## 5.000-20.000 biztanleko udalerrietako udalak

| Araba/Álava | Bizkaia | Gipuzkoa |
|---|---|---|
| Amurrio | Abadiño | Andoain |
| Laudio/Llodio | Abanto y Zierbana-Abanto Zierbana | Aretxabaleta |
| | Amorebieta-Etxano | Azkoitia |
| | Arrigorriaga | Azpeitia |
| | Balmaseda | Beasain |
| | Berango | Bergara |
| | Bermeo | Deba |
| | Derio | Elgoibar |
| | Elorrio | Hernani |
| | Ermua | Hondarribia |
| | Etxebarria | Lasarte-Oria |
| | Gernika-Lumo | Lazkao |
| | Gorliz | Legazpi |
| | Güeñes | Lezo |
| | Lekeitio | Oiartzun |
| | Mungia | Oñati |
| | Muskiz | Ordizia |
| | Ondarroa | Orio |
| | Ortuella | Pasaia |
| | Sopela | Tolosa |
| | Valle de Trápaga-Trapagaran | Urnieta |
| | Zalla | Urretxu |
| | | Usurbil |
| | | Villabona |
| | | Zumaia |
| | | Zumarraga |

## 20.000 biztanletik gorako udalerrietako udalak (hiriburuak izan ezik)

| Bizkaia | Gipuzkoa |
|---|---|
| Barakaldo | Arrasate/Mondragón |
| Basauri | Eibar |
| Erandio | Errenteria |
| Durango | Irun |
| Galdakao | Zarautz |
| Getxo | |
| Leioa | |
| Portugalete | |
| Santurtzi | |
| Sestao | |

## Hiriburuetako udalak

| | | |
|---|---|---|
| Vitoria-Gasteiz | Bilbao | Donostia/San Sebastián |

III. ERANSKINA **Emaitzen laburpena kultura-esparruen arabera**

## MUSIKA

EAEko administrazio publikoek 92,6 milioi euro bideratu zituzten musikaren sektorera (EAEko kultura gastuaren % 19,4), hau da, 42,7 euro biztanleko.

**A1. figura**
Musikara bideratutako EAEko kultura-gastu finkatua (%) 2010




**A2. figura**
Musikara bideratutako biztanleko gastu kontsolidatua (€/biztanleko) 2010




Musikako gastuaren zatirik handiena langileria-gastuetara bideratu zen (48,7 milioi euro, % 52,6). Ondasunetako eta zerbitzuetako gastu arruntetara (II. kapitulua) 16,9 milioi euro bideratu ziren (% 18,2), eta transferentzia arruntetara (IV. kapitulua) 14,8 milioi euro (% 16). Gastuaren % 9,9 (9,2 milioi euro), berriz, inbertsioetara bideratu zen.

**A3. figura** EAEko kultura gastu kontsolidatuaren banaketa kapitulu ekonomikoaren arabera: EAEko guztizkoa eta musika (euroak eta % -ak ) 2010

| Kapitulu ekonomikoa | EAEko guztizkoa | | Musika | | Musika EAEko guztizkoari dagokionez |
|---|---|---|---|---|---|
| | € | % | € | % | % |
| I. kap. Langileria-gastuak | 133.349.709 | 27,8 | 48.692.767 | 52,6 | 36,5 |
| II. kap. Ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak | 154.846.262 | 32,3 | 16.882.659 | 18,2 | 10,9 |
| III. kap. Finantza-gastuak | 554.525 | 0,1 | 6.830 | 0,0 | 1,2 |
| IV. kap. Transferentzia arruntak | 69.190.930 | 14,4 | 14.802.255 | 16,0 | 21,4 |
| VI. kap. Inbertsio errealak | 80.214.884 | 16,8 | 9.214.435 | 9,9 | 11,5 |
| VII. kap. Kapital-transferentziak | 34.281.622 | 7,2 | 2.986.403 | 3,2 | 8,7 |
| VIII. kap. Finantza-aktiboak | 6.543.890 | 1,4 | 49.227 | 0,1 | 0,8 |
| IX. kap. Finantza-pasiboak | 118.918 | 0,0 | 0 | 0,0 | 0,0 |
| GUZTIRA | 479.100.740 | 100,0 | 92.634.576 | 100,0 | 19,4 |

## KULTURA-EKINTZA

EAEko administrazio publikoek 82,6 milioi euro bideratu zituzten, 2010ean, kultura-ekintzara (EAEko gastu kontsolidatuaren % 17,2), hots, 38,1 euro biztanleko.

**A4. figura**
Kultura-ekintzara bideratutako EAEko kultura-gastu kontsolidatua (%) 2010




**A5. figura**
Kultura-ekintzara bideratutako biztanleko gastu kontsolidatua (€/biztanleko) 2010




Ondasunetako eta zerbitzuetako gastu arruntetan (II. kapitulua) baliatu zen diru gehien: 36,0 milioi euro (kultura-ekintzako guztizko gastuaren % 43,6). Gastu-bolumenaren arabera, inbertsio errealak daude bigarren tokian (19,8 milioi euro, % 23,9), eta hirugarrenean, berriz, IV kapituluari dagozkion gastuak (14,8 milioi euro, % 18).

**A6. figura** EAEko kultura gastu kontsolidatuaren banaketa kapitulu ekonomikoaren arabera: EAEko guztizkoa eta kultura-ekintza

(euroak eta % -ak) 2010

| Kapitulu ekonomikoa | EAEko guztizkoa | | Kultura-ekintza | | Kultura-ekintza EAEko guztizkoari dagokionez |
|---|---|---|---|---|---|
| | € | % | € | % | % |
| I. kap. Langileria-gastuak | 133.349.709 | 27,8 | 9.615.621 | 11,7 | 7,2 |
| II. kap. Ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak | 154.846.262 | 32,3 | 36.029.330 | 43,6 | 23,3 |
| III. kap. Finantza-gastuak | 554.525 | 0,1 | 3.217 | 0,0 | 0,6 |
| IV. kap. Transferentzia arruntak | 69.190.930 | 14,4 | 14.817.714 | 18,0 | 21,4 |
| VI. kap. Inbertsio errealak | 80.214.884 | 16,8 | 19.760.053 | 23,9 | 24,6 |
| VII. kap. Kapital-transferentziak | 34.281.622 | 7,2 | 2.202.864 | 2,7 | 6,4 |
| VIII. kap. Finantza-aktiboak | 6.543.890 | 1,4 | 7.482 | 0,0 | 0,1 |
| IX. kap. Finantza-pasiboak | 118.918 | 0,0 | 118.918 | 0,1 | 100,0 |
| GUZTIRA | 479.100.740 | 100,0 | 82.555.199 | 100,0 | 17,2 |

## MUSEOAK

EAEko administrazio publikoek 57,6 milioi euro bideratu zituzten museoetara 2010ean (EAEko kultura-gastu kontsolidatuaren % 12). Esparru honetan, biztanle bakoitzeko ratioa 26,6 eurotan dago.

**A7. figura**

Museoetara bideratutako EAEko kultura-gastu kontsolidatua (%). 2010




**A8. figura**

Museoetara bideratutako biztanleko gastu kontsolidatua (€/biztanleko) 2010




2010ean museotara bideratutako gastuaren zatirik handiena (14,4 milioi euro, guztizkoaren % 25,1) ondasun eta zerbitzuetako gastu arrunten kapituluari dagokio. Bigarren mailan daude, gastu-bolumenari dagokionez, beste hauek: transferentzia arruntak (10,8 milioi, % 18,8), langileria-gastuak (10,5 milioi, % 18,2) eta inbertsio errealak (9,8 milioi, % 17).

**A9. figura** EAEko kultura gastu kontsolidatuaren banaketa kapitulu ekonomikoaren arabera: EAEko guztizkoa eta museoak

(euroak eta % -ak) 2010

| Kapitulu ekonomikoa | EAEko guztizkoa | | Museoak | | Museoak EAEKo guztizkoari dagokionez |
|---|---|---|---|---|---|
| | € | % | € | % | % |
| I. kap. Langileria-gastuak | 133.349.709 | 27,8 | 10.497.423 | 18,2 | 7,9 |
| II. kap. Ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak | 154.846.262 | 32,3 | 14.432.360 | 25,1 | 9,3 |
| III. kap. Finantza-gastuak | 554.525 | 0,1 | 102.663 | 0,2 | 18,5 |
| IV. kap. Transferentzia arruntak | 69.190.930 | 14,4 | 10.836.999 | 18,8 | 15,7 |
| VI. kap. Inbertsio errealak | 80.214.884 | 16,8 | 9.809.310 | 17,0 | 12,2 |
| VII. kap. Kapital-transferentziak | 34.281.622 | 7,2 | 6.646.705 | 11,5 | 19,4 |
| VIII. kap. Finantza-aktiboak | 6.543.890 | 1,4 | 5.288.888 | 9,2 | 80,8 |
| IX. kap. Finantza-pasiboak | 118.918 | 0,0 | 0 | 0,0 | 0,0 |
| GUZTIRA | 479.100.740 | 100,0 | 57.614.348 | 100,0 | 12,0 |

## ONDAREA ETA ARKEOLOGIA

EAEko administrazio publikoek 49,0 milioi euro bideratu zituzten ondarera eta arkeologiara (EAEko kultura gastuaren % 10,2), hau da, 22,6 euro biztanle bakoitzeko.

**A10. figura**
Ondarera eta arkeologiara bideratutako EAEko kultura-gastu kontsolidatua
(%) 2010




**A11. figura**
Ondarera eta arkeologiara bideratutako biztanleko gastu kontsolidatua
(€/biztanleko) 2010




Esparru honetan kapital-gastuak handiagoak izan ziren gastu arruntak baino: 10 eurotik 7 kapital-gastuak izan ziren (31,7 milioi euro); eta, kapital-gastu horiek VI. kapituluko (inbertsio errealak) eta VII. kapituluko (kapital-transferentziak) gastuetan banatu ziren, kapitulu bakoitzeko 15,8 milioi euro, hain zuzen ere (guztizkoaren % 32,3).

**A12. figura** EAEko kulturako gastu kontsolidatuaren banaketa kapitulu ekonomikoaren arabera: EAEko guztizkoa eta ondarea eta arkeologia
(euroak eta % -ak) 2010

| Kapitulu ekonomikoa | EAEko guztizkoa | | Ondarea eta arkeologia | | Ondarea eta arkeologia EAEKo guztizko gastuari dagokionez |
|---|---|---|---|---|---|
| | € | % | € | % | % |
| I. kap. Langileria-gastuak | 133.349.709 | 27,8 | 5.343.229 | 10,9 | 4,0 |
| II. kap. Ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak | 154.846.262 | 32,3 | 5.331.814 | 10,9 | 3,4 |
| III. kap. Finantza-gastuak | 554.525 | 0,1 | 14.022 | 0,0 | 2,5 |
| IV. kap. Transferentzia arruntak | 69.190.930 | 14,4 | 6.657.734 | 13,6 | 9,6 |
| VI. kap. Inbertsio errealak | 80.214.884 | 16,8 | 15.835.010 | 32,3 | 19,7 |
| VII. kap. Kapital-transferentziak | 34.281.622 | 7,2 | 15.843.317 | 32,3 | 46,2 |
| VIII. kap. Finantza-aktiboak | 6.543.890 | 1,4 | 0 | 0,0 | 0,0 |
| IX. kap. Finantza-pasiboak | 118.918 | 0,0 | 0 | 0,0 | 0,0 |
| GUZTIRA | 479.100.740 | 100,0 | 49.025.126 | 100,0 | 10,2 |

## LIBURUTEGIAK

38,3 milioi eurorekin, EAEn kulturan egindako gastu finkatuaren % 8 bereganatu zuten liburutegiek. Biztanle bakoitzeko ratioa 17,7 eurokoa izan zen.

**A13. figura**
Liburutegietara bideratutako EAEko kulturako gastu kontsolidatua (%) 2010




**A14. figura**
Liburutegietara bideratutako biztanle bakoitzeko gastu kontsolidatua
(€/biztanleko) 2010




Sektore honetan gastu arruntak gailentzen dira: I. kapitulukoen (langileria-gastuak) eta II. kapitulukoen artean (ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak) gastatu zen liburutegietako gastu osoaren % 77,8; zehazki, langileria-gastuak 19,4 milioi eurokoak izan ziren, eta ondasunetako eta zerbitzuetako gastu arruntak 10,5 milioi eurokoak.

**A15. figura** EAEko kulturako gastu kontsolidatuaren banaketa kapitulu ekonomikoaren arabera: EAEko guztizkoa eta liburutegiak
(euroak eta % -ak) 2010

| Kapitulu ekonomikoa | EAEko guztizkoa | | Liburutegiak | | Liburutegiak EAEko guztizkoari dagokionez |
|---|---|---|---|---|---|
| | € | % | € | % | % |
| I. kap. Langileria-gastuak | 133.349.709 | 27,8 | 19.369.627 | 50,5 | 14,5 |
| II. kap. Ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak | 154.846.262 | 32,3 | 10.461.033 | 27,3 | 6,8 |
| III. kap. Finantza-gastuak | 554.525 | 0,1 | 178 | 0,0 | 0,0 |
| IV. kap. Transferentzia arruntak | 69.190.930 | 14,4 | 59.918 | 0,2 | 0,1 |
| VI. kap. Inbertsio errealak | 80.214.884 | 16,8 | 8.371.124 | 21,8 | 10,4 |
| VII. kap. Kapital-transferentziak | 34.281.622 | 7,2 | 77.038 | 0,2 | 0,2 |
| VIII. kap. Finantza-aktiboak | 6.543.890 | 1,4 | 1.400 | 0,0 | 0,0 |
| IX. kap. Finantza-pasiboak | 118.918 | 0,0 | 0 | 0,0 | 0,0 |
| GUZTIRA | 479.100.740 | 100,0 | 38.340.318 | 100,0 | 8,0 |

## JAIAK ETA HERRI-KULTURA

2010ean 37,6 euro baliatu ziren jaietan eta herri-kulturan EAEn (guztizko gastu kontsolidatuaren % 7,9). Biztanle bakoitzeko ratioa 17,3 eurokoa da.

**A16. figura**

Jaietara eta herri-kulturara bideratutako EAEko kultura-gastu kontsolidatua

(%) 2010




**A17. figura**

Jaietara eta herri kulturara bideratutako biztanle bakoitzeko gastu kontsolidatua

(€/biztanleko) 2010




Jaietara eta herri-kulturara bideratutako gastuaren % 98,6 gastu arruntetara bideratu zen, pentsatzekoa den bezala; horien barruan, II. kapituluari dagozkion ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntetan inbertitu zen gehien (26,3 milioi euro, esparruko guztizkoaren % 69,9), baita, maila apalagoan, IV. kapituluari dagozkion transferentzia arruntetan ere (8,6 milioi euro, % 23).

**A18. figura** EAEko kulturako gastu kontsolidatuaren banaketa kapitulu ekonomikoaren arabera: EAEko guztizkoa eta jaiak eta herri-kultura

(euroak eta % -ak) 2010

| Kapitulu ekonomikoa | EAEko guztizkoa | | Jaiak eta herri-kultura | | Jaiak eta herri-kultura EAEko guztizkoari dagokionez |
|---|---|---|---|---|---|
| | € | % | € | % | % |
| I. kap.Langileria-gastuak | 133.349.709 | 27,8 | 2.154.536 | 5,7 | 1,6 |
| II. kap. Ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak | 154.846.262 | 32,3 | 26.269.609 | 69,9 | 17,0 |
| III. kap. Finantza-gastuak | 554.525 | 0,1 | 0 | 0,0 | 0,0 |
| IV. kap. Transferentzia arruntak | 69.190.930 | 14,4 | 8.638.918 | 23,0 | 12,5 |
| VI. kap. Inbertsio errealak | 80.214.884 | 16,8 | 429.766 | 1,2 | 0,5 |
| VII. kap. Kapital-transferentziak | 34.281.622 | 7,2 | 80.000 | 0,2 | 0,2 |
| VIII. kap. Finantza-aktiboak | 6.543.890 | 1,4 | 0 | 0,0 | 0,0 |
| IX. kap. Finantza-pasiboak | 118.918 | 0,0 | 0 | 0,0 | 0,0 |
| GUZTIRA | 479.100.740 | 100,0 | 37.572.829 | 100,0 | 7,9 |

## ZUZENDARITZA ETA ZERBITZU OROKORRAK

Zuzendaritza eta zerbitzu orokorretan egindako gastua 35,3 milioi eurokoa izan zen (EAEko gastu kontsolidatuaren % 7,4). Biztanle bakoitzeko ratioa 16,3 eurokoa da.

**A19. figura**

Zuzendaritzara eta zerbitzu orokorretara bideratutako EAEko kultura-gastu kontsolidatua (%) 2010




**A20. figura**

Zuzendaritzara eta zerbitzu orokorretara bideratutako biztanle bakoitzeko gastu kontsolidatua (€/biztanleko) 2010




Zuzendaritza eta zerbitzu orokorretako gastuaren % 91,7 gastu arruntetan bideratu zen: zati handiena langileria-gastuetan (I. kapitulua), 21,6 miloi euro (% 61,2).

**A21. Figura** EAEko kulturako gastu kontsolidatuaren banaketa kapitulu ekonomikoaren arabera: EAEko guztizkoa eta zuzendaritza eta zerbitzu orokorrak

(euroak eta % -ak) 2010

| Kapitulu ekonomikoa | EAEko guztizkoa | | Zuzendaritza eta zerbitzu orokorrak | | Zuzendaritza eta zerbitzu orokorrak EAEko guztizkoari dagokionez |
|---|---|---|---|---|---|
| | € | % | € | % | % |
| I. kap. Langileria-gastuak | 133.349.709 | 27,8 | 21.590.978 | 61,2 | 16,2 |
| II. kap. Ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak | 154.846.262 | 32,3 | 10.363.694 | 29,4 | 6,7 |
| III. kap. Finantza-gastuak | 554.525 | 0,1 | 265.640 | 0,8 | 47,9 |
| IV. kap. Transferentzia arruntak | 69.190.930 | 14,4 | 123.694 | 0,3 | 0,2 |
| VI. kap. Inbertsio errealak | 80.214.884 | 16,8 | 2.930.049 | 8,3 | 3,7 |
| VII. kap. Kapital-transferentziak | 34.281.622 | 7,2 | 0 | 0,0 | 0,0 |
| VIII. kap. Finantza-aktiboak | 6.543.890 | 1,4 | 16.557 | 0,0 | 0,3 |
| IX. kap. Finantza-pasiboak | 118.918 | 0,0 | 0 | 0,0 | 0,0 |
| GUZTIRA | 479.100.740 | 100,0 | 35.290.612 | 100,0 | 7,4 |

## ANTZERKIA ETA DANTZA

Antzerkiak eta dantzak bereganatu zuten EAEko gastu finkatuaren % 7,2. 34,4 milioi euroko gastua da hori, hots, biztanle bakoitzeko 15,8 euro.

**A22. figura**
Antzerkira eta dantzara bideratutako EAEko kultura-gastu kontsolidatua
(%) 2010




**A23. figura**
Antzerkira eta dantzara bideratutako biztanle bakoitzeko gastu kontsolidatua
(€/biztanleko) 2010




Kapitulu ekonomikoen araberako banaketari erreparatuta, gastuaren ia erdia (% 48) II. kapituluari dagokiola ikus daiteke (ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak): 16,4 milioi euro. Bigarren gasturik handieneko kapitulua I.a izan zen, 7,2 milioi eurorekin (% 21), eta hirugarrena, berriz, IV. kapitulua, 4,4 milioi euroko gastuarekin (% 13).

**A24. figura** EAEko kulturako gastu kontsolidatuaren banaketa kapitulu ekonomikoaren arabera: EAEko guztizkoa eta antzerkia eta dantza
(euroak eta % -ak) 2010

| Kapitulu ekonomikoa | EAEko guztizkoa | | Antzerkia eta dantza | | Antzerkia eta dantza EAEko guztizko gastuari dagokionez |
|---|---|---|---|---|---|
| | € | % | € | % | % |
| I. kap. Langileria-gastuak | 133.349.709 | 27,8 | 7.155.689 | 20,8 | 5,4 |
| II. kap. Ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak | 154.846.262 | 32,3 | 16.373.034 | 47,6 | 10,6 |
| III. kap. Finantza-gastuak | 554.525 | 0,1 | 58.259 | 0,2 | 10,5 |
| IV. kap. Transferentzia arruntak | 69.190.930 | 14,4 | 4.416.738 | 12,9 | 6,4 |
| VI. kap. Inbertsio errealak | 80.214.884 | 16,8 | 2.889.987 | 8,4 | 3,6 |
| VII. kap. Kapital-transferentziak | 34.281.622 | 7,2 | 3.475.936 | 10,1 | 10,1 |
| VIII. kap. Finantza-aktiboak | 6.543.890 | 1,4 | 0 | 0,0 | 0,0 |
| IX. kap. Finantza-pasiboak | 118.918 | 0,0 | 0 | 0,0 | 0,0 |
| GUZTIRA | 479.100.740 | 100,0 | 34.369.643 | 100,0 | 7,2 |

## ZINEMA ETA IKUS-ENTZUNEZKOAK

Zinemara eta ikus-entzunezkoetara 22,1 milioi euro bideratu ziren 2010ean (EAEko gastu kontsolidatu osoaren % 4,6), hau da, 10,2 euro biztanleko.

**A25. figura**

Zinemara eta ikus-entzunezkoetara bideratutako EAEko kultura-gastu kontsolidatua (%) 2010




**A26. figura**

Zinemara eta ikus-entzunezkoetara bideratutako biztanle bakoitzeko gastu kontsolidatua (€/biztanleko) 2010




Kapitulu ekonomikoen arabera, zatirik handiena ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntetara bideratu zen: 9,5 milioi euro (% 42,8). IV. (transferentzia arruntak), VI. (inbertsio errealak), VII. (kapital-transferentziak) eta I. kapituluekin lotutako gastuak 2 eta 4 milioi euro artekoak izan ziren, % 11 eta % 16 bitarteko pisu erlatiboarekin.

**A27. Figura** EAEko kulturako gastu kontsolidatuaren banaketa kapitulu ekonomikoaren arabera: EAEko guztizkoa eta zinema eta ikus-entzunezkoak (euroak eta % -ak) 2010

| Kapitulu ekonomikoa | EAE, guztira | | Zinema eta ikus-entzunezkoak | | Zinema eta ikus-entzunezkoak EAEko guztizkoari dagokionez |
|---|---|---|---|---|---|
| | € | % | € | % | % |
| I. kap. Langileria-gastuak | 133.349.709 | 27,8 | 2.387.228 | 10,8 | 1,8 |
| II. kap. Ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak | 154.846.262 | 32,3 | 9.461.259 | 42,8 | 6,1 |
| III. kap. Finantza-gastuak | 554.525 | 0,1 | 103.716 | 0,5 | 18,7 |
| IV. kap. Transferentzia arruntak | 69.190.930 | 14,4 | 3.540.386 | 16,0 | 5,1 |
| VI. kap. Inbertsio errealak | 80.214.884 | 16,8 | 2.845.166 | 12,9 | 3,5 |
| VII. kap. Kapital-transferentziak | 34.281.622 | 7,2 | 2.598.490 | 11,7 | 7,6 |
| VIII. kap. Finantza-aktiboak | 6.543.890 | 1,4 | 1.180.336 | 5,3 | 18,0 |
| IX. kap. Finantza-pasiboak | 118.918 | 0,0 | 0 | 0,0 | 0,0 |
| **GUZTIRA** | **479.100.740** | **100,0** | **22.116.581** | **100,0** | **4,6** |

## ARTXIBOAK

EAEko administrazio publikoek 14 milioi euro bideratu zituzten artxiboetara (EAEko kulturako gastua kontsolidatuaren % 2,9), hau da, 6,5 euro biztanle bakoitzeko.

**A28. figura**
Artxiboetara bideratutako EAEko kulturako gastu kontsolidatua
(%) 2010




**A29. figura**
Artxiboetara bideratutako biztanle bakoitzeko gastu kontsolidatua
(€/biztanleko) 2010




Artxiboetara bideratutako aurrekontuaren erdia baino gehiago (% 53,3) VI. kapituluko inbertsioetara bideratu zen: 7,5 milioi euro. Eta laurden bat baino gehiago (% 28,4), hots, 4 milioi euro, langileria-gastuetara (I. kapitulua).

**A30. Figura** EAEko kulturako gastu kontsolidatuaren banaketa kapitulu ekonomikoaren arabera: EAEko guztizkoa eta artxiboak (euroak eta %) 2010

| Kapitulu ekonomikoa | EAEko guztizkoa | | Artxiboak | | Artxiboak EAEko guztizko gastuari dagokionez |
|---|---|---|---|---|---|
| | € | % | € | % | % |
| I. kap. Langileria-gastuak | 133.349.709 | 27,8 | 3.982.569 | 28,4 | 3,0 |
| II. kap. Ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak | 154.846.262 | 32,3 | 1.675.319 | 12,0 | 1,1 |
| III. kap. Finantza-gastuak | 554.525 | 0,1 | 0 | 0,0 | 0,0 |
| IV. kap. Transferentzia arruntak | 69.190.930 | 14,4 | 870.068 | 6,2 | 1,3 |
| VI. kap. Inbertsio errealak | 80.214.884 | 16,8 | 7.474.406 | 53,3 | 9,3 |
| VII. kap. Kapital-transferentziak | 34.281.622 | 7,2 | 12.253 | 0,1 | 0,0 |
| VIII. kap. Finantza-aktiboak | 6.543.890 | 1,4 | 0 | 0,0 | 0,0 |
| IX. kap. Finantza-pasiboak | 118.918 | 0,0 | 0 | 0,0 | 0,0 |
| GUZTIRA | 479.100.740 | 100,0 | 14.014.615 | 100,0 | 2,9 |

## IKUSIZKO ARTEAK

2010ean, euskal erakunde publikoek 11,1 milioi euro inbertitu zituzten ikusizko arteetan (EAEko kulturako gastu kontsolidatuaren % 2,3). Biztanle bakoitzeko ratioa 5,1 eurokoa izan zen.

**A31. figura**

Ikusizko arteetara bideratutako EAEko kultura-gastu kontsolidatua (%) 2010




**A32. figura**

Ikusizko arteetara bideratutako biztanle bakoitzeko gastu kontsolidatua

(€/biztanleko) 2010




Ikusizko arteetan egindako gastuaren erdia baino gehiago II. kapituluari dagokio: 6 milioi euro, zehazki. Bigarren tokian daude, gastu-bolumenaren arabera, IV. kapituluari dagozkion transferentzia arruntak, 2,4 milioi eurorekin (% 20,9).

**A33. figura** EAEko kulturako gastu kontsolidatuaren banaketa kapitulu ekonomikoaren arabera: EAEko guztizkoa eta ikusizko arteak

(euroak eta % -ak) 2010

| Kapitulu ekonomikoa | EAEko guztizkoa | | Ikusizko arteak | | Ikusizko arteak EAEko guztizkoari dagokionez |
|---|---|---|---|---|---|
| | € | % | € | % | % |
| I. kap. Langileria-gastuak | 133.349.709 | 27,8 | 2.031.355 | 18,2 | 1,5 |
| II. kap. Ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak | 154.846.262 | 32,3 | 6.010.805 | 53,9 | 3,9 |
| III. kap. Finantza-gastuak | 554.525 | 0,1 | 0 | 0,0 | 0,0 |
| IV. kap. Transferentzia arruntak | 69.190.930 | 14,4 | 2.329.859 | 20,9 | 3,4 |
| VI. kap. Inbertsio errealak | 80.214.884 | 16,8 | 574.015 | 5,2 | 0,7 |
| VII. kap. Kapital-transferentziak | 34.281.622 | 7,2 | 204.000 | 1,8 | 0,6 |
| VIII. kap. Finantza-aktiboak | 6.543.890 | 1,4 | 0 | 0,0 | 0,0 |
| IX. kap. Finantza-pasiboak | 118.918 | 0,0 | 0 | 0,0 | 0,0 |
| GUZTIRA | 479.100.740 | 100,0 | 11.150.034 | 100,0 | 2,3 |

## LITERATURA ETA EDIZIOA

EAEko administrazio publikoek 3,5 milioi euro bideratu zituzten literatura eta ediziora (kulturako gastu kontsolidatuaren % 0,7). Biztanle bakoitzeko ratioa 1,6 eurokoa da.

**A34. figura**

Literatura eta ediziora bideratutako EAEko kultura-gastu kontsolidatua

(%) 2010




**A35. figura**

Literatura eta ediziora bideratutako biztanle bakoitzeko gastu kontsolidatua

(€/biztanleko) 2010




Literatura eta edizioan, gastu arruntak gailendu ziren kapital-gastuen aldean (gastuaren % 96,1 arrunta izan zen). Gastu arrunten barnean, berriz, transferentzia arruntetara (IV. kapitulua) bideratu zen diru gehien, 1,8 milioi euro (gastuaren % 50,1) eta, maila apalagoan, ondasun eta zerbitzuetara (II. kapitulua): 1,2 milioi euro (guztizkoaren % 33,4).

**A36. Figura** EAEko kulturako gastu kontsolidatuaren banaketa kapitulu ekonomikoaren arabera: EAEko guztizkoa eta literatura eta edizioa

(euroak eta % -ak) 2010

| Kapitulu ekonomikoa | EAEko guztizkoa | | Literatura eta edizioa | | Literatura eta edizioa EAEko guztizkoari dagokionez |
|---|---|---|---|---|---|
| | € | % | € | % | % |
| I. kap. Langileria-gastuak | 133.349.709 | 27,8 | 443.504 | 12,6 | 0,3 |
| II. kap. Ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak | 154.846.262 | 32,3 | 1.175.524 | 33,4 | 0,8 |
| III. kap. Finantza-gastuak | 554.525 | 0,1 | 0 | 0,0 | 0,0 |
| IV. kap. Transferentzia arruntak | 69.190.930 | 14,4 | 1.760.029 | 50,1 | 2,5 |
| VI. kap. Inbertsio errealak | 80.214.884 | 16,8 | 81.563 | 2,3 | 0,1 |
| VII. kap. Kapital-transferentziak | 34.281.622 | 7,2 | 55.016 | 1,6 | 0,2 |
| VIII. kap. Finantza-aktiboak | 6.543.890 | 1,4 | 0 | 0,0 | 0,0 |
| IX. kap. Finantza-pasiboak | 118.918 | 0,0 | 0 | 0,0 | 0,0 |
| GUZTIRA | 479.100.740 | 100,0 | 3.515.636 | 100,0 | 0,7 |

## BERTSOLARITZA

EAEko administrazio publikoek 0,9 milioi euro bideratu zituzten bertsolaritzara 2010ean (kulturako gastu kontsolidatuaren % 0,2). Biztanle bakoitzeko ratioa 0,4 eurokoa izan zen.

**A37. figura**
Bertsolaritzara bideratutako EAEko kulturako gastu kontsolidatua (%) 2010




**A38. figura**
Bertsolaritzara bideratutako biztanle bakoitzeko gastu kontsolidatua
(€/biztanleko) 2010




Bertsolaritzan ere, gastu handieneko kapitulua ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak izan ziren (II. kapitulua), transferentzia arruntekin batera (IV. kapitulua): 0,4 (% 42,1) eta 0,3 (% 37,2) milioi eurorekin, hurrenez hurren.

**A39. Figura** EAEko kulturako gastu kontsolidatuaren banaketa kapitulu ekonomikoaren arabera: EAEko guztizkoa eta bertsolaritza
(euroak eta % -ak) 2010

| Kapitulu ekonomikoa | EAEko guztizkoa | | Bertsolaritza | | Bertsolaritza EAEko guztizkoari dagokionez |
|---|---|---|---|---|---|
| | € | % | € | % | % |
| I. kap. Langileria-gastuak | 133.349.709 | 27,8 | 85.183 | 9,5 | 0,1 |
| II. kap. Ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak | 154.846.262 | 32,3 | 379.822 | 42,1 | 0,2 |
| III. kap. Finantza-gastuak | 554.525 | 0,1 | 0 | 0,0 | 0,0 |
| IV. kap. Transferentzia arruntak | 69.190.930 | 14,4 | 336.618 | 37,3 | 0,5 |
| VI. kap. Inbertsio errealak | 80.214.884 | 16,8 | 0 | 0,0 | 0,0 |
| VII. kap. Kapital-transferentziak | 34.281.622 | 7,2 | 99.600 | 11,1 | 0,3 |
| VIII. kap. Finantza-aktiboak | 6.543.890 | 1,4 | 0 | 0,0 | 0,0 |
| IX. kap. Finantza-pasiboak | 118.918 | 0,0 | 0 | 0,0 | 0,0 |
| GUZTIRA | 479.100.740 | 100,0 | 901.223 | 100,0 | 0,2 |

# IV. ERANSKINA Kultura Ministerioaren gastua EAEn

Espainiako Gobernuko Kultura Ministerioak 15,7 milioi euro eman zizkion EAEri 2010ean, hau da, 2008an baino % 51,9 gutxiago. Gastu horren % 78,1 transferentzia arruntak izan ziren (12,3 milioi euro, zehazki); % 19,8 kapital-transferentziak (3,1 milioi euro) eta % 2,1 inbertsioak (0,3 milioi euro).

2008 eta 2010 urteen arteko alde handia kapital-transferentzien jaitsierek eragin zuten, 2008ko 20,9 milioi eurotik 3,1 milioi eurora jaitsi baitziren 2010ean.

**B1. figura** Kultura Ministerioak EAEn egindako gastua, kapitulu ekonomikoaren arabera

(euroak eta % -ak) 2008-2010

| Kapitulu ekonomikoa | Kultura Ministerioaren gastua EAEn | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | 2008 | | 2010 | | 2008-2010eko bilakaera |
| | € | % | € | % | % |
| IV. kap. Transferentzia arruntak | 11.768.400 | 35,9 | 12.308.400 | 78,1 | 4,6 |
| VI. kap. Inbertsio errealak | 163.480 | 0,5 | 331.200 | 2,1 | 102,6 |
| VII. kap. Kapital-transferentziak | 20.858.730 | 63,6 | 3.117.000 | 19,8 | -85,1 |
| GUZTIRA | 32.790.610 | 100,0 | 15.765.600 | 100,0 | -51,9 |

2010ean, Bizkaiak jaso zuen diru gehien Kultura Ministeriotik, 6,6 milioi euro, zehazki; Gipuzkoak 5,7 milioi euro jaso zituen; eta Arabak, azkenik, 1,6 milioi euro. Beste 1,8 milioi euro transferentzia arrunt gisara inbertitu ziren, beren jarduera-eremua EAE osoan duten erakundeetara bideratuta; gastu horiek zeharkako gastutzat jotzen dira.

2008an Ministerioaren esku-hartzea oso bestelakoa izan zen, Gipuzkoak jaso baitzuen diru gehien, lurralde historiko honetara bidalitako kapital-transferentzien bolumena zela medio.

**B2. figura** Kultura Ministerioak EAEn egindako gastua, lurralde historikoaren arabera

(euroak eta % -ak) 2008-2010

| Lurralde historikoa | Kultura Ministerioaren gastua EAEn | | | |
|---|---|---|---|---|
| | 2008 | | 2010 | |
| | € | % | € | % |
| Araba | 4.590.040 | 14,0 | 1.605.180 | 10,2 |
| Bizkaia | 12.519.280 | 38,2 | 6.602.270 | 41,9 |
| Gipuzkoa | 15.533.810 | 47,4 | 5.742.480 | 36,4 |
| Zeharkakoa | 147.480 | 0,4 | 1.806.670 | 11,5 |
| EAE-KO GUZTIZKOA | 32.790.610 | 100,0 | 15.756.600 | 100,0 |

Hauek dira Kultura Ministerioaren laguntza gehien jaso zuten esparruak, hurrenkera honetan: zinema eta ikus-entzunezkoak (% 46,5), museoak (% 20,2) eta arte eszenikoak (% 19,7). Zinemari dagokionez, jasotako inbertsioaren zati handi bat zinematografia babesteko funtsaren deialdi orokorreko zenbatekoetatik dator; museoetan eta arte eszenikoetan, aldiz, Ministerioaren gastua jarduera espezifikoetan oinarritzen da, batik bat.

2008an museoek eta zeharkako izaerako jarduerek jaso zuten Kultura Ministerioaren laguntzarik gehien.

**B3. figura** Kultura Ministerioak EAEn egindako gastua, kultura-esparruaren arabera

(%) 2008-2010

| Kultura-esparrua | Kultura Ministerioaren gastua EAEn | |
|---|---|---|
| | 2008 (%) | 2010 (%) |
| Zinema eta ikus-entzunezkoak | 5,7 | 46,5 |
| Museoak | 34,8 | 20,2 |
| Arte eszenikoak | 11,5 | 19,7 |
| Zeharkakoa | 22,1 | 4,4 |
| Musika | 5,0 | 4,3 |
| Ondarea eta arkeologia | 18,3 | 3,3 |
| Artxiboak | 0,6 | 1,1 |
| Liburutegiak | 0,9 | 0,2 |
| Literatura eta edizioa | 1,2 | 0,2 |
| GUZTIRA | 100,0 | 100,0 |

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

**Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia**
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco